

1994ko urtarrilak 21

220. zenb.

PRESS

# ARRASATE



**Greba  
deialdia  
ostegunerako**

**Santa Agedako  
ospitaleak  
Terapia  
kulturala**

# JANU



*haur antzerkia*  
**JAKE-MATE**  
antzerki kolektiboa

urtarrilak 22 zapatua  
**AMALA** antzokian  
Arratsaldeko 5etan  
sarrera: 200 PTA



ARRASATEKO UDALA

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatefexa!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek  
Arrasateko Udalaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaureritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Despistatuta dabilenari

**D**enok daukagu adierazpen askatasunerako eskubidea. Hau da, irizti askatasuna eta informazioa zein ideiak jaso edo komunikatzeko askatasuna. Ivo D. Duchacek Jaunak hiru kategorია bereizten ditu adierazpen askatasunaren tipologia egitean:

**Absolutistak:** adierazpen askatasun politiko zein ez politiko mugagabea nahi dute. Hauentzat, zilegi litzateke Amaia Antzokian Goikobalukoak kantari eta aretoa jendez gainezka, norbaitek SUA! oihuka-tzea.

**Maximalistak:** askatasun osoa eskatzen dute ideia politikoei dagokienez; baina bizitzaren gainontzeko esfera intelektualetan, askatasun erlatiboa dute nahiago.

**Erlatibistak:** Hauentzat hobe da adierazpen askatasuna muga batzuren barruan mantentzea, gizarteko beste balore batzuekin harremanetan.

Ivo D. Duchacek Jaunak, baina, ez zuen Arrasateko Errepublika Independentea eza-gutu, tipo gehiago erantsi ahal izateko:

**Xabier Zubizarreta:** Kasu honetan oso zaila da jakiten, beretzako batipat ezinezkoa ia, noiz den Xabier Zubizarreta, noiz Alkatea eta noiz bere partiduko ordezkaria. Halere, ñabardurak alde batera, honentzat horma eta paretak garbi mantentzea, adierazpen askatasunaren kontra doa. (ATBn entzuna).

Hori esan zuenean, ez zen oso argi geratu lehenengo aipatu diren hiru taldeetatik zein duen gogoko edo gogokoen.

**Ilustrauek:** Hauek, askatasunaren defendatzaile amorratuak dituzu. Hain gartsuki defendatzen dute

askatasuna, ezen neurea ere defendatzen enpainatzen diren, nik halakorik eskatu ez diedala. Akaso erlatibisten subtaldea baino ez lirateke, esandako beste balore horiek grupuskulo baten balore zehatz eta ezagunak direnean.

**Katxorrioloak:** Hauek ez dakite adierazpen askatasuna zer den. Ez dakite askatasuna zer den. Zalantzak dauzkate ea zerbaitez ezer dakiten. Halere, arrazoiaren jabe dira eta kalea beraiena dela esan die ilustratzaile bategi. Eskolan zerotik hasi beharko lukete, gatzetxoak izaki garaiz baitabilta zerbaitez ikasteko, gizon bilakatu baino lehenago.

Adierazpen askatasuna, ez ezazu deskuidatu lagun. Edo gehiegi kriminalizatzen dugu edo kalean aplikatzen zentzugabeki, "eliteen" adierazpen askatasuna hiritar arruntarena baino zabalagoa denaz ohartu gabe.

Ah, eta "politikoe" paretetan egiten dutena zera da, dirua alferrikako lanetan erabiltzeaz gain, garbiketa negoziok alde batera, **guarrada bat**.

JON IÑAKI LASA



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 08 15


**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitateak:** Amaia Gabibondo (77 08 15). **Administrazioak:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Makotazioak:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeri Olabarrieta, Arantza Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Ardondua, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Vallés.



# Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



**Alkoholarekin arazoak  
dauzazu?**

Agian,  
"Alkoholiko  
Anonimoek" lagundu  
ahal dizute!!

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

# "PAL"

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

## Udalbatza eta tortura

1993ko abenduaren 26an, Arrasateko Udalak egingandako plenoan, Torturaren aurkako herri ekimenak proposamen bat aurkeztu zuen. Proposamen honen bidez Arrasateko Udalarik honako puntu hauek bereak egitea eskatzen zitzaion:

— Lege antiterrorista indargabetzea.

— Espainiako Epaitegi Nazionala, Epaitegi berezia den aldetik, desagertaraztea.

— Espainiako Zigor Kodean tortura delitua egoki tipifikatzea.

Puntu hauen inguruan PNV, PSOE, EA eta EUE alderdi politikoetako zinegotziek izandako jarreraz jabeaz nahi ditugu arrasatear guztiok eta, aldi berean, gure haserrea azaldu.

Zinegotziak, herrikideak diren pertsonak, izen-abizenak dituzten pertsonak, inolako azalpenik eman gabe puntu horiek asumitzeari uko egin diote. Jarrera hori gaur egun torturaren erabilerak duen zigorgabetasuna babes-teko modutzat jotzen dugu.

Zinegotziak, gizartearen sektore ezberdinak ordezkatu behar litzuketen pertsona horiek, beren baseak (botomailleak) alderdi bakoitzeko zuzendaritzaren erabakieta-rra inplikatu egiten dituzte. Erabaki hauek, ziurrenik, populazioaren gehiengoaren nahiekin ez datoz bat.

Gure aldetik, ez dugu aipatu gabe utzi nahi, Seni-

deak-ek, euskal preso politikoaren familiarren elkarteak, egindako eskariari ere Arrasateko Udalbatzak emandako erantzuna, ixiltasuna eta ezetza. Senideak-ek honakoa besterik ez zuen eskatzen: Arrasateko udalak, Belen Arizabaleta arrasatearraren senarra eta euskal preso politikoa den Unai Parot etengabe sufritzen ari den jipoiak kondenatzea eta, ahal den neurrian, horrelakorik berriz ere gerta ez dadin birtartekotza egitea.

Pertsonak jasotzen dituzten tortura eta jipoiak onargarriak dira Giza-Eskubideak defendatzen dutela esaten duten pertsona horientzat.

**AMAIA GARZIA**

**TORTURAREN AURKAKO HERRI  
EKIMENENKOA PARTAIDEA**

## Gesalibarko Auzo Alkateari Erantzunez:

Lehenik eta behin, esan beharra dago, Eusko Jaurlaritzarena dela telebista kateak jasotzeko kompetentzia. Azken urteotan, Arrasateko udala ari da ordaintzen ATB ikusteko sibilitate teknikorik ez duen oraingo errepetidorearen energi kontsumoaren kostua. Gestio ugari egin du udalak errepetidore berri bat beste leku batean kokatzeko, telebista kate publiko, autonomi elkarteak eta estatukoak nahiz ATB herriko telebista jasotzeko. Egin diren gestio horiek ez dute frui-

turik jaso hirigintza arazoak egon direlako. Momentu honetan, 1993-12-1ean Gesalibar auzoko batzordeak planteatu zuen proposamena ari da aztertzen Arrasateko udala, hainbat problema tekniko planteatzen duen proposamena hain zuzen ere. Bestalde, errepetidore egoki bat jartzeko sibilitate denak aztertzen jarraitzen du udalak, eta horretarako, behar diren azpiegitura-obra eginez, sortu diren arazoak zuzendu eta gero.

Gesalibar auzoan ATBren seinalea jasotzeko gai-rituz, egokiago ikusi da konponbide zabala ematea, auzo horretarako ezezik beste auzo batzuetarako ere bai, erantzun partzial bat eman beharrean, izan ere, Gesalibar auzoko problema bakarrik konponduko litzateke horrela; eta guzti horrek ez du esan nahi auzotarrek egin duten proposamena baztertzeko denik, lehen esan dugun bezala, aztertzen ari den proposamena baita. Gesalibar auzoko batzordeak nahiz M. Angeles Iñurrategi auzo alkateak badaukate gestio guztien berri, bai eta Gobernu Batzordeak horri buruz hartu duen akordioaren berri ere, Gesalibar auzoan telebista seinalea jasotzeko gaia 1993ko aurrekontuaren likidazioaren eta 1994ko aurrekontuaren onespeneraren eztabaidaren kontestura bidaltzeko hartu duen akordioaren berri hain zuzen ere.

**XABIER ZUBIZARRETA.  
ARRASATEKO ALKATEA.**

**SUPERMERTUAK**




# Gustatzen zaizu sagardotegietako giroa?



**Rosario Uriarte**  
**Etxekoandrea (58 urte)**

Behin egon naz. Aurten ez noie. Gustau jaten baña ia zahartuz goiez eta ia ez.



**Gorka Gonzalez**  
**Komertziala (37 urte)**

Bai, asko gainera. Joatekotan gaude, greba egunaren bezperan, koadrilan.



**Maria Jesus Agirre**  
**Santa Agedako langilea (33 urte)**

Ez dut ezagutzen, ez naiz sekula joan. Baina hemengo tipikoa da eta ezagutzea gustatuko litzaidake.



**Jose Luis Terceño**  
**Txurreroa (21 urte)**

Afariak egitera eta joaten gara, bai. Aurten oraindik ez, baina nire eguna da laster eta egingo dugu afaritxoren bat.



**Isabel Vaquero**  
**Gozotegiko langilea (24 urte)**

Gustatzen zait bai, nahiko giro jatorra izaten da. Aurten aukerarik sortzen bazait, joango naiz.



**Rafael Gil**  
**Langabezian (60 urte)**

Ez naiz sekula egon. Ez zait gustatzen edatea, ez sagardoa ez beste ezer.




**Trini Lopez**  
**Pentsionista (66 urte)**

Duela gutxi egon naiz, kasualitatea, Eroskiko txango baten, gulak promozionatzeko zen. Zoragarri, aizu, zoragarri eman ziguten jaten.



**Iñaki Sanz**  
**Komertziala (32 urte)**

Gustatzen zait, baina aurten nahiko txarto daukat joateko, hilabete amaieran lanik gabe geratu behar naiz eta.



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

**MENDIA**

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Ertetxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulanziazkiak .....	45 87 44
<b>Udaltzaingoa</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) .....	12 01 62
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
<b>Garraioak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. .....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Monterrongo liburutegia</b>	
Monterron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 21**  
Egunez eta gauez: Español. Iturriotz, 17.
- Larunbata 22**  
Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.
- Igandea 23**  
Egunez eta gauez: Irizar. Erquin.
- Astelehena 24**  
Egunez eta gauez: Amezua. Sta. Marina.
- Asteartea 25**  
Egunez eta gauez: Ruiz. Magdalena.
- Asteazkena 26**  
Egunez eta gauez: Morales. San Andres.
- Osteguna 27**  
Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

**14 OSTIRALA**

**ZINEA**

“La Mitad Oscura”. 7etan eta 10etan.

**IKERKETA BEKA**

Urretxu-Zumarragako Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak bi herri hauei buruzko ikerketa lan bat egiteko beka sortu du. Ikerketa lan honen gaia librea izango da, baina bi herri hauekin zerikusia izan beharko du. Bekaren ezaugarriak: ikerketa lan euskaraz burutuko da, orijinala, eta lana egiteko epea 12 hilabetetakoa. Bekaren guztizko zenbatekoa 800.000 PTAKoa izango da. Interesatuek eskabideak Zintzo-Mintzo elkartearen, Labeaga kalea 12 etxeazpian entregatu beharko dituzue otsailaren 28a baino lehen.



**LA FAMILIA ADDAMS**

Hemen dugu Addams familiaren beste filme bat, lehen pelikulan parte hartu zuten aktore berdintsuekin. Gómez eta Mortiziak familiaren aberastasuna eskuratu nahi duen emakume hiltzaile bati egin beharko diote aurre. Ez dira falta gizarteari kritika egitea helburu duten eszenak ere. Batek baino gehiagok gazte garaiak gogoratuko ditu filme hau ikustean.

**15 LARUNBATA**

**ZINEA**

“La Familia Addams. La tradición continua.” 5etan 7.30etan eta 10etan.

**JOKU MOKU**

Haur antzerkia. Jake Mate antzerki taldearen eskutik. Arratsaldeko 5etan, Amaia antzokian. Sarrera 200 PTA.

**MASAIA ETA YOGA IKASTAROAK**

**Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta. Yoga ikastaroa urtarrilaren 24an hasiko da eta martxoaren 16an bukatu. Astelehen eta asteazkenetan emango da, goizeko 9.45etan, arratsaldeko 6.30etan eta gaueko 8.30etan. Masaia ikastaroa urtarrilaren 22an hasiko da eta martxoaren 26an bukatu. Larunbatero arratsaldeko 5etatik 8etara emango da. Izenemateko dei egin 793576 telefonora.**

**16 IGANDEA**

**ZINEA**

“La Familia Addams. La tradición continua.” 5etan 7.30etan eta 10etan.

**MENDI IRTEERA**

Murruko Mendizale elkarteak antolatuta, elurretara irteera. Goizeko 9etan Aretxabaletako partenoitik, goizeko 9etan.

**GERRA OSTEKO BERTSO JARTZAILEEI OMENALDIA**

Horien artean, Joxe Manuel Arriola arrasatearra. Donostiako Victoria Eugeniaren goizeko 11.30etan.

**PINTURA ERAKUSKETAREN AMAIERA**


Bergarako 29 margolariren margoak ikusteko azken eguna. Harresi Aretxean. Orduetgia: eguerdiko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

**BAINUETXEETARA JOATEKO PROGRAMA**

Insersok, jubilatuentzat antolatuta. Programa hau martxoan hasi eta abenduan amaituko da. Espainian dauden bainuetxeetara joateko aukera egongo da: Granada, La Coruña, Mallorca, Salamanca, Errioxa... Prezioa 23.100 eta 45.500 PTA bitartekoa izango da eta egonaldia 15 egunekoa. Programa honetan parte hartzeko betebeharreko baldintzak: gizarte segurantzako pentsioduna izatea, baliatua izatea, ezarrita dagoen baremoaren arabera puntuazio minimoa lortzea. Martxotik abuztura bitartean joan nahi dutenentzat, eskaria egiteko epea urtarrilaren 25ean amaituko da eta maiatzaren 31n, irailtik abendura joan nahi dutenentzat.

**17 ASTELEHENA****ZINEA**

"La Familia Addams. La tradición continua". 7etan eta 9.30etan.

**BESAIDEREN IRTEERA**

Besaidek mendi irteera bat antolatu du urtarrilaren 30erako. Ibilbidea: Goizueta - Urnieta (Nafarroa). Irteera goizeko 7.00etan, Garibatik. Izenematea, urtarrilak 25, 26 eta 27an egin daiteke, arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan. Prezioak: bazkide nagusiek 1000 PTA, bazkide gazteek 500 PTA, bazkide ez diren nagusiek 1300 PTA eta bazkide ez diren gazteek 800 PTA.

**ARGAZKI ERAKUSKETA**

Santamasak 1993 argazki lehiaketaren erakusketa. Monteiron Kultur Etxean. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Urtarrilaren 23ra arte zabalik.

**18 ASTEARTEA****ZINEA**

"La Familia Addams. La tradición continua". 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

Gaia: kolesterola. Aretxabale-tako Kultur Etxean, arratsaldeko 3etan. Eroskik antolatuta.

**FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUKO IKASTAROAK**

Honako hauek dira 1994rako antolatu dituzten ikastaroak: psikologia soziala, garapen pertsonala, erlajazioko masaia, sofrologia, kultura orokor mugikorra, elikadura eta nutrizioa, lanpostua bilatzeko pres-takuntza, unibertsitaterako sarbidea, patroidun joskintza, marrazkia eta pintura, puntua eta gakorrata, sukaldaritza eta gozogintza, eskulan tailerra eta kitarra. Informazio gehiago nahi baduzu, dei egin 790459 telefonora.

**19 ASTEAZKENA****HITZALDIA**

Gaia: kolesterola. Aretxabale-tako Kultur Etxea, arratsaldeko 3etan. Eroskik antolatuta.

**OTSAILEKO MATRIKULAZIO KANPAINA**

Urtarrilaren 24ean, Arrasateko ERDU-AEK euskaltegian matrikulazioa egiteko kanpaina zabalduko da. Matrikula epea otsailaren 11an bukatuko du eta klaseak otsailaren 14an hasiko dira. Ordutegi eskaintza zabala dute: goizez, eguerdiz, arratsaldez, egunean bi ordu, astelehenetik ostiralera. Informazio gehiago jaso edota matrikulatzeko dei egin 770369 telefonora, edo joan euskaltegi-ara: Garibai etorbidea 14, 3. solairua.

**GREBA EGUNA**

Ostegunerako Greba Eguna iragarrita dago. ELA eta LAB sindikatuek ekintza bateratuak egingo dituzte. Besteak beste, ostegunearratsaldeko 7.30etan, Portaloian kontzentrazioa.

**20 OSTEGUNA****GREBA EGUNA**

Eskualdeko manifestazioa Bergaran, eguerdiko 12etan. Irteera San Martin plazatik. ELA eta LAB sindikatuek deituta.

Manifestazioa Arrasaten, eguerdiko 12etan. Irteera Portaloitik. CC.OOek deituta.

Kontzentrazioa, arratsaldeko 7.30etan, Portaloian. ELA eta LAB sindikatuek deituta.

(Ekintza hauetan azken orduko aldaketarik egon daiteke)

**TEKNIKARI BURUZKO IKASTAROA IKERLANEN**

Profesional mekaniko, hidrauliko eta elektrikoei zuzenduta. Ikastaroa, otsailaren 8, 9, 10 eta 11an emango da, goizeko 9etatik eguerdiko ordu bata arte. Ikastaroko hizlariak Ikerlaneko Automatika eta Injineritza Departamenduko langileak izango dira. Prezioa, 20.000 PTA. Informazio gehiago nahi izanez gero, dei egin 771200 telefonora.

“Eta zuentzat, nirekin batera sufritzen duzuenontzat, zuen asteburuko bizitza zuen irrifarrearekin niri indarra emateko nire lokutorioaren kristal blindaturaino etortzeko errepideetan zuen asteburuko bizia uzten duzuenoi, gure ametsaren alde buruz buruz borrokan ari zaretonoi, nire hutsunearengatik negar egiten duzuenontzat, sentitzen dut, baina zuentzat ez dut ezer berezirik data hauetan. Gabonak ez dira beharrezko ondo asko dakizuen hori esateko: zuek beti zaudete nire bizitzan, eta beraz, nire baita zaudete. Osasuna eta askatasuna”.

**Pako Robles** preso arrasatearrak 93-12-30 **egin**

“Orain jar dezagun kasu praktiko bat. 19 urteko gazte bat naiz, batxilergoko ikasketan bukatu ditut, baina ikasle ona ez naizenez, ez dut Unibertsitatera sartzerik izan eta Defentsa Ministeritzari eskaini behar izan diot nire bizitzako urtebete. Oso era egokian hilean 1000 pezetan ordaindu dizkidate, eta pertsonak hiltzen ere erakutsi didate. Orain etorri eta lana aurkitu dut. (...) Ulertzen duzue zergatik naizen zoriontsu? Lehen urteko aprendiz naizelako, 19 urte besterik ez ditut eta 14.900 pezeta irabazten ditut! Eta niretzat bakarrik! Eskerrikasko lagun politikariok. Hauteskundeetan nire botua nahi izango duzue gero.

**Javier Sanchez** arrasatearrak 94-1-11 **EL DIARIO VASCO**

“Greba orokorraren arrakastak (produkzioaren jardueraz gain herritarren mugimendu dena geratzea) lantegi, ikastetxe, saltoki, auzo eta abarren kontzientziazioan gogor lan egitea eskatzen du, neurrien ondorioei buruzko azalpenak eman behar baitira. Greba Orokorraren alde gauden guztion artean egin behar dugu lan hori, izan ere elkartzen gaituena askoz gehiago da aldentzen gaituena baino”.

**Juan Ramon Garaik** 94-1-12 **Egunkaria**


## Zer aldatuko da grebarekin? Zergatik greba?

**G**rebaren arrazoiak aztertu baino lehenago, hurrengo egunean zer izango den galdezteko joera ematen ari da, baina sindikalistontzat garrantzitsuagoa da greba eguna zergatik ezarri dugun azaltzea. Patronala ari da moeta honetako mezuak jaurtitzen, grebak ez duela ezertarako balio esaten eta, baina beldur direlako ari dira hori egiten.

Lehendabizi esan behar da, neurri hau ez dugula kapritxoz hartu, badakigu grebak ondorio negatiboak ere ekartzen dituela. Guretzat hobeto litzateke gobernuaz komunikazioa edukiko ba-

genu, baina erantzun beharra dago. Ezarri diguten egoeraren aurrean sindikalistok ezin gara geldirik egon eta mugitu beharra dugu. Jarri nahi den lan merkatuko erreformaren ondorioz, langileei urtetan egindako lanagatik dagozkien eskubideak murriztu egingo zaizkie eta gazteak ere egoera txarretan lanean hastea ahalbidetuko du erreforma honek. Era berean segurtasun sozialaren pribatizazioa ere badakar. Bestalde, euskaldunontzat greba honek beste zerbait eskatzeko ere balio izango du. Euskal Herriak bere neurriak hartzeko eskubidea izan behar du eta ez dugu Madriletik datozen erabakiak onartu beharko. Geuk ere geure politika ekonomikorako tresnak eduki behar ditugu.

Egoera ez da bapatean aldatuko jakina, baina badakigu gauzak aldatzen joango direla, ezinezkoa baita sindikatuak aintzat hartu gabe gobernatzea. Eta ez da egia grebak bakarrik egiten ditugunik, proposamenak baditugu eta horiek eztabaidatu egin nahi ditugu.



**Luis Miguel Saiuz**  
ELA sindikatuko Deba Garaiko arduraduna. (ELA eta LAB sindikatuen iritzi bateratua)



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
**ARRASATE**

BLUSAK  
OSAGARRIAK  
POLTSAK

**XATHO**

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban  
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aukiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



**Izotzagatik istripua**

Trafiko istripu larria gertatu zen asteartean Aretxabaletan, auto batek izotzetan laban egin ondoren. Gasteizeruntz zihoan R-12 bat irauli egin zen, bidearen ezker alderuntz joan zen eta Arrasatera zetorren ertzaintzako auto batek jo zuen. Jarraian, beste hiru autok ere talka egin zuten. Ondorioz, R-12aren gidaria, Aitor Mondragon, 22 urteko arrasatearra, hil egin zen. Berarekin zihoazen Arrasateko beste hiru gaztek (Iker A.R., Alejandro S.M. eta Juan O.C., hirurak 18 urtekoak) eta Angel M.A. ertzainak zauri larriak izan zituzten.



**Elurra bisitari**

Astelehenean elurra izan genuen Arrasaten, estrainezko aurtengo neguan. Egunean zehar tarteka jausitako elur eta txingorrek kotxe-gain eta teilatuak zuritu zituen, eta inguruko errepideetan arazo ugari sortu zuen. Inguruko mendateetan kateak behar izan ziren, pasabidea itxita ez zegoenean. Gatza-ga ere itxi egin zuten, eta hurrengo egunetan ere hala jarraitu zuen izotzagatik. Astearte eta asteazkenean izotza izan genuen, eta ostegunean Arrasate berriro zurituta azaldu zen.

**EA-EUE eta Maltzaga-Urbina**

Eusko Alkartasunak eta Euskal Ezkerrak Maltzaga-Urbina ardatzari buruz egin duten proposamena larunbatean aurkeztu zuten Arrasaten publikoki. Funtsean zera diote EA eta EUEk: Deba Bailarako garraio bideak hobetu egin behar direla eta horretarako biderik onena autobia dela, ez peajedun autopista. Horrez gain,

Interbentzio Gune Partehartzaileen (IGP direlakoak) prozesuaren alde daude erabat, eta IGPen erabakia bete dadin eskatu diete instituzioei.

**Lehen IGPak amaitu zuen bere jarduna**

Joan den ostiralean bukatu zuen bere jarduna Maltzaga-Urbina ingu-

ruan antolatutako lehen Interbentzio Gune Partehartzaileak. Lehen Gune hau esperientzia pilotoa izan zen eta Arrasateko Aita Menni Ospitalean bildu zen. Foro hauen antolaketan jardun duten LES-Gizarteaz enpresako soziologoek oso modu positiboan baloratu dute lehen Gune horren funtzionamendua, jendeak parte hartzeko irrika handia

erakutsi du eta. Aste honetako atsedenean ostean, datorren astean beste bi IGP bilduko dira Aita Mennin, Deba Garaiko 50 bizilagunekin.

**Krisiaren aurka**

Joan den asteko ostegunean beste enkartelada bat egin ondoren, bere ibilbidea hasi du Krisiaren Aurkako Arrasateko Taldeak, astelehenean egindako bilera batekin. Egoera ekonomikoak eragindako bazterketa eta pobrezia egoera gero eta larriagoak salatuzeko asmoz, zenbait ekintza burutzea espero dute talde honetakoek.

**JAIOTZAK**

- Andoni Izagirre Arrieta. Urtarrilaren 9an.
- Gaizka Donnay Otegi. 9an.
- Maialen Ferreira Frutos. 9an.
- Rebeca Izquierdo Murillo. 14ean.

**HILDAKOAK**

- Juan Antonio Arellano Moyano. Urtarrilaren 11an. 73 urte.
- Facundo Azcoaga Madinabeitia. 12an. 70 urte.
- Cristina Jimenez Jimenez. 12an. 83 urte.
- Juana Benitez Garcia. 13an. 90 urte.
- Ursula Garcia Martin. 15ean. 77 urte.
- Abelino San Sebastian Barandiaran. 16an. 88 urte.

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



JABIER SALABERRIA \*

## Euskadiko kooperatiben Lege berria (I)

**4/1993 Legea**, Euskadiko Kooperatibena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Uztailaren 19an argitaratu zen eta hogeita hamar egunetarako jarri zen indarrean.

Lehenago indarrean zegoen 1/1982 Legeak bete ditu bere helburuak. Hala ere, lege berri bat beharrezkoa zen. Hasteko, Estatuan eta Autonomia Elkarteetan kooperatibei buruzko legediaren hobekuntzak kontuan hartzeak ziren; bestetik, merkataritza eta elkarten zuzenbidean eraberritze sako na burutu da eta ezinbesteko erreferentzia da kooperatiba elkarteak teknikoki eta gaurkotasunez arautu ahal izateko; bukatzeko, gure kooperatiba-ekintza etengabe aberastu da bere barne-bilakaerari nahiz merkatuaren eskarieri aurre egin ahal izateko.

### Eratzea:

Kooperatiba sortzeko beharrezkoa dena eskritura

publikoan jaso beharra ezartzen da.

### Bazkideak:

Lan-bazkideek parte hartzeko kriterioak derrigorrez beharko dituzte estatutuek. Bazkideek informazioa jasotzeko duten eskubidea modu zabal eta osotuagoan arautzen da. Bazkideak kooperatibarekiko iraupen jakinek harremanak izatea ahalbidetu da.

### Organoak:

Batzar Orokorraren eta Kontseilu Errektorearen kompetentzi-arloak, bakoitzaren ardura soil-soilik direnak garbi zehazten dira. Hala, Kontseilu Errektorearen esku utzi dira enpresa aurrera eramateko beharrezko diren egitekoak (eta Batzar Orokorrak ezin izango ditu legeak elkarteko beste organo baten esku uzten dituen kompetentziak bere egin).

Batzar Orokorraren araudia hobetu egin da: bigarren

deialdia egiten denerako gutxieneko kopurua ezarri da; bi hereneko gehiengo indartua eskatzen duten egoerak gutxiago izango dira; bakoitzak boto bat baino gehiago izateko aukera ere ezarri da, baita lehen mailako kooperatibetan ere, zenbait legegertsonari dagokionez, modu horretan kooperatiba berriak sortu eta daudenak sendotzeko.

Kooperatiben administrazio ordezkatzeari dagokionez, administratzaileenak baino ez diren egitekoak modu zabalean zehazten dira; bazkide gutxi dituzten kooperatibek administratzaile bakarra izateko aukera dute; Kontseilu Errektoreko kide batzuk bazkide ez diren artean hautatuak izango dira eta bigarren mailako kooperatibetan Kontseiluko kideak aukeratu ahal izango dituzte, organo hori profesionalagoa izan dadin; azkenik, administratzaileek erantzukizun handiagoa izango dute.

Legeak, Zaintza Batzordea ezartzen du, organo berri eta administratzailearen eta batzar nagusien arteko lokarri bezala.

Handi samarrak diren kooperatibak Kontseilu Soziala eratzeko aukera jarri dezakete Estatutuetan, lan arazoetan langile bazkideen ordezkotza duen organo bezala.

Errekurtso batzordearen kompetentzia berraztertu eta zabaldu egin da.

\* **KOOPERATIBETAKO LEGE-AHOLKULARIA**

## USTEAK USTE

### OHITURA ALDAKETA

Ziur naiz sarri asko egin aurretik unetxo batez pentsatuko bagenu ez genukeela hainbat gauza egingo, eta hasiera honek trazendentala badirudi ere, eguneroko eta zuzentzeko hain zail diren jarrera batzuk aipatzea baizik ez nuke nahi.

Egia da denok erlojuaren menpe bizi garela, eta egia da, bakoitzak berea bakarrik ikusten dugula (zoritarrez gero eta gehiago), baina denok ados egongo gara hau ez dela egokiena. Beraz, gauza txikietan ez bada ere, has gaitezen ohiturak aldatzen.

Adibidez, zenbat aldiz geratzen gara gidariok zehrabide baten aurrean jendea pasa dadin? Zenbat aldiz pasatuko gara oinezkoak zehrabide batetik korrika, kotxe batek noiz harrapatuko ote gaituen beldur? Hain zaila da kotxea geldiaraztea? Zenbat denbora gaitzen dugu, segundu batzuk?

Kotxea erabiltzen dugonkin jarraituz, kotxea aparkatzeko arazoak daude. Denok ados, ez da erraza ez, justu norberak nahi duen puntu zehatz horretan lekua aurkitzea. Eta pixkat haruntzago saiartzeko bagara? Baina, hala eta guztiz ere lekuri aurkitzen ez badugu eta beste kotxe bati traba eginez eta mugitzen oztapatuz aparkatzen badugu, hain zaila da ohartxo bat ipintzea non aurki gaitzaketen esanaz? Bi adibide besterik ez ditut aipatu. Baina zenbat horrelako egunean zehar? Ea jarrerak aldatuz, pixkanaka pixkanaka, bizitza bera beste ikuspegi batetik ikusteko gauza izatera heltzen garen.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU.

**LODITASUNA,  
LIPOESKULTURA,  
LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

**ESTETIKA KLINIKA**

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)  
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54


**Janaridenda  
traspasoan.**

Negozia martxan dago baina atenditu ezinagatik utzi behar dugu.

**2.000.000 PTA**

**Tfnoa: 76 52 80**

**Elektroinjekzio  
Zerbitzua**



**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
**ARRASATE**



Azken langile mobilizazioak Roneokoak izan ziren, herri mailako lanuztea eta guzti.

## 27ko greban parte hartzera deitu dute sindikatuek

Ostegunerako, urtarrilaren 27rako deitutako greba orokorrean parte hartzera deitu dute Arrasateko sindikatu guztiek. Hala ere, lerro hauek idazteko orduan, ez dira ados jarri ekintza gehiagotan elkarrekin joateko.

Alde batetik, LAB eta ELAk Bergaran deitu dute eskualdeko manifestazioa, eta CCOOK Arrasaten egiteko asmoa zuen. Iturri sindikaletatik, ekintza bateratuak antolatzeko ahaleginetan ari zirela adierazi diote ARRASATE PRESSI. Bateratzeko zailtasunen atzean, ELA-LABek eta CCOO-UGTk Euskal Herri mailan dituzten desadostasunak daude.

Lan-baldintzen kaskartzeak Arrasaten ere eragina izango duela uste dute sindikatuek. Egoeraren okertzeak eman ditu adibideak hainbat enpresatako gatazketan. Urriko azken datuen arabera, Deba Garaian 2.961 pertsona daude langabezian, eta horietatik 1.138 25 urtetik beherakoak dira.

Grebarako motibo diren neurriek (Madrilgo Gobernuak proposatutako lan merkatuaren eraldaketa) kooperatibetan ere eragin zuzena izango dutela adierazi dute CCOOK eta Kooperatibisten Taldeak (KT), agiri baten bidez. "Kooperatibetako zuzendaritzek proposamen horiek onartzen dituzte", diote CCOOK eta KTk. Sindikatu hauen esanetan, "Estatuak prestazio sozialak murriztu dituen bakoitzean, Lagun-Arok guri ere murriztu egin dizkigu".

Sektore industrialetik aparte, sindikatuek merkataritzaren laguntza eskatu dute. Hor-taz, elkartasuna eskatu diete dendariei, eta grebarekin bat egitekotan, 26an dendetan agiri batzuk jartzeko eskatu diete.

Greba eguneko mobilizazioez gain, aur-reko egunetan ere egongo dira, protesta honekin erlazonaturiko ekintzak, LABek deitutako kontzentrazio bat eta auto-karabana bat, kasu.

### Injineru neutrala

Maltzaga Urbinako Interbentzio Gune Partehar-tzaileen (IGP) hastapenean izandako oztopoetako bat aditu neutral batzuei ezarritako betoa izan zen. Alderdi teknikoak landu behar zituen Injineruen Kolegioari betoa jarri zion Eguzki talde ekologistak, Kolegioak autopistaren aldeko ageriko jarrera nahiko garbia eizuelako, ez neutrala. Hala ere, Gizarteazeko zuzendariak, Luxio Ugartek, ukatu egin du adituetako bat Castor Garate (autopistaren aldeko talde baten txostengilea) izan behar zenik, nahiz eta Eguzkik hori salatu. Dagoeneko, Gizarteazek beste injineru neutral bat kontratatu du aditu lanerako. Aditu hauek IGPetako partehar-tzaileen zerbitzuan daude, zalantzak eta auzi nahasiak argitzeko.

### Zubi metalikoko kartela

Roneoko zubi metalikoan Arrasate dioen kartela jartzeko baimenik ez daukala gogoratu dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasateko Udalarari. Diputazioko errepide-teknikari baten iritziz, kartel hori iragarki publizitarioa omen da, eta horregatik baimen berezia behar du. Konfusio hori konpontzeko agiri bat bidaliko du Udalak Foru Aldundira, ongi-etorria ematen duen kartela bere lekuan utz dezaten.



**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



LKS enpresa ari da ikerketa biak egiten, Udalaren enkarguz.

## Industria eta merkataritzaren gainerako ikerketak aurrera

Udalaren enkarguz merkataritza eta industriaren egoera neurtzeko egiten ari diren ikerketak atzeratu egin dira hilabete batzuetan. Bi ikerketen atzean LKS enpresa dago, eta bideratuta dauden arren, beste bi hilabete beharko dituzte. Bi ikerketek antzerako helburuak dituzte: krisiaren eragina neurtu, eta irtenbide posibleak hausnartu.

Bi kasuetan, inkesta zabal batzuk izan dira orain arte egindakoak. Bai industrietan eta bai komertzioetan, hainbat galdeketa egin dituzte LKSkoek datuak biltzeko. Orain, alor bakoitzean lan-talde batzuk antolatuta dira. Industriari dagokionez, enpresa mun-

duko Arrasateko hainbat pertsonak hartuko du parte lan-taldean; eta merkataritzarenean, dendariren batzuek eta Merkatal Ganbarako ordezkariak. LKSk teknika-riren laguntzarekin, lan-talde hauek etorkizunera begirako ekintza posibleen programa egitea dute helburu.

Bestetik, herriko merkataritzarako aholkularitza zerbitzuan aldaketa gertatu da urtea hastearrekin, arduradun berria dauka: Raquel Garcia. Aholkulari honek Mankomunitatearen lokaletan dauka bulegoa, eta bertan atenditzen ditu merkatarien eskaerak egunero goizez.

## Lurrazpiko aparkalekua

Lau-Kaleko urbanizazio-ko aparkaleku publiko berria orduka eta txandaka esplotatuko du udalak. Roneoko terreno zaharretan egin den urbanizazio berri honetan, lur-azpiko 172 aparkaleku egin dituzte Udalarentzat. Zenbait aukera estudiatu eta gero, aparkalekuan orduka sistema erabiltzea erabaki du udalak, sei hilabeteko frogaren batean. Goizeko 8etatik gaueko 10etara egongo da irekita, eta autoa bertan izateagatik orduko 50 PTA ordaindu beharko dira. Hala ere, amaitzeko daude lanak, eta ez dakite noiz irekiko den

## Erreketara isurketak

Iparaldeko Konfederazio Hidrografikoak hondakin isurketak egiteagatik isunak ezarri dizkie Arrasateko bi enpresari, 150.000 PTA bakoitzari. Deba Garaiko Mankomunitateari ere 100.000 PTAko beste zigor bat ezarri diote, Akeiko erretegitik San Balerixo errektara ur-zikinak isurtzeagatik.



**JOSU**  
TXOKOLATEGIA  
KAFATEGIA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66



**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**ORAIN LARUNBATETAN ERE BAI!!**  
Helduentzako ingelesezko ikastaro trinkoak

- MAILAK: Oinarrizkotik ertainera
- ORDUTEGIA: 9etatik 12etara
- IKASTAROAREN HASIERA: otsailak 4
- MATRIKULA zabalik urtarrilaren 31ra arte
- INFORMAZIO GEHIAGO jasotzeko dei egin: 79 01 32 - 79 65 54 tfnoetara

AHIZKE - CIM Koop. E.  
Araba Etorb., 4

20.500 ARRASATE



**zortzi**

**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE



Kanpazarko bidera ematen du Epeleko errepede berriak.

## Atzerapen nabarmena Epeleko errepedean

Epeleko errepedea egiteko lanek atzerapen nabarmena daukate. Azaroan, administrazioak urte hasierarako zabalduko zela adierazi zuen, baina orain, apirilera iragarri dute irekiera. Gainera, Bizkaiko Diputazioak jakinarazi duenez, obrak ez du oraingoz jarraipenik izango Bizkaiko partetik.

Errepide honek Epeleko bailaratik hartzen du bidea Kanpazarrerako. Ia lau kilometro ditu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du. Obraren atzerapenean zerikusi handia izan dute euriteengatik gertatu diren lurjauseiek. Atzerapenarekin batera, hasieran kalkulaturako 1.300 milioi PTako

aurrekontua garestitu egin da.

Errepide horrek jarraipena izan beharko luke Bizkaiko partera, Kanpazar azpitik egin beharreko tunelaren bitartez. Hala ere, kontrakoa agindu arren, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du obra horretarako aurrekonturik gordeko 1994ean. Guztira, 15.000 milioi PTako lana egin nahi du Bizkaiko Diputazioak, Kanpazarko igoera moldatzeaz gain, Elorrio eta Abadiñoko saihebidetarako ere egin nahi dituzte eta. Kanpazar azpitik 700 metroko tunela egin behar da, eta proiektu horrek zailtasun handia dauka, Diputazioaren esanetan.

### Mankomunitateko aurrekontuak

Deba Garaiko Mankomunitateak 1994erako aurrekontuak onartzeko biltzarra egingo du urtarrilaren 26an. Printzipioz, zirriborro bat prest du, eta horretan 589 milioi PTako aurrekontua aurrikusten da, iaz baino %7 gehiago. Kopuru horretatik 256 milioi udalek jarriko dituzte, eta Arrasatek ipiniko du diru gehien: 96,8 milioi PTA. Gastuetan, nominetatik aparte (horiak hartzen baitute aurrekontuen zatirik handiena), Akeiko zabor-erregiak 99 milioi eroango ditu eta Zubillagako hiltzeak 57 milioi. Beste 51 milioi inbertsioetarako izango dira, aurrekontuak dauden moduan onartzen badira.

### Kale berriak

Bi kale berri dauzka Arrasatek. Musakola auzoan egin diren urbanizazio lanetan kale berri bat sortu da ibaiaren aldetik, eta "Zigarrola" izena jarri diote. Altamira auzoan, Jose Luis Iñarrarekin bat egiten duen kaleak "Altamirazpi" izena edukiko du.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Ostegunean Asegarceko pilotariak etorri ziren Arrasatera. Pilotari hauek jazteaz arduratzen den etxea, **Astore**, bisitatu izan ziren. Punta puntako pilotari eta ezagunak diren beste hainbat

personaia gure artean: **Julian Retegi, Fernando Arretxe, Rubén Beloki, Karlos Arguiñano...** Goizeko lanak egin eta gero, Bedoñan babajana eduki zuten.



**Joan zen larunbatean Arrasateko EAJ-PNVko 45 lagun Bilboko Sabin Etxea bisitatzera joan ziren. Bisita egin eta**

**gero, Abandoko batzokian bazkaldu eta arratsaldean museo etnografikoa bisitatu zuten.**

Aretxabaletako Arientza auzoan dagoen abadetxea alokatzeko asmotan dabil AED. Ez da AEDko kideen asmoa abade ikasketak egiten hastea. Antolatzen

dituzten udaleku, egonaldi nahiz barnetegietarako aterpetxea edukitzeko, Arientza paraje ezin hobe dela uste dutelako ari dira asmo horrekin.



## • ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABALETA

## ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Olarateko ikastolako haurren bisita izan genuen San Sebastian bezperan. Hurrengo egunean tanborra jo behar zutela eta, gonbidapena ematera etorri ziren. Beste hainbat ikas-

tetxetatik ere jaso genituen gonbidapenak. Donostian ez ezik, Arrasaten ere tanborradak egin ziren. Hotzari aurre egiteko, zer hobeto tanbor hotsa baino?

**Negu neguko eguraldia izan dugu aste honetan, edurra mara-mara eta demaseko izotzak. Negu parteko hotz handienak izan ditugu eta portaloiko termometroa 0 gradutatik igo ezinik ibili da.**



**Santi Dosuna eta Errose Elixabeth Mendikute** abenduaren 4ean ezkondu ziren Arrasateko Udaletxean. Ezkon bidaian Errepublika Dominikarrera joan ziren. Zorionak!

## IZEN PROPIOAK

### ● Raquel Garcia, 25

urte, Ibai Arte elkarteko aholkulari tekniko berria da. Raquel arrasatearra da eta enpresa zientzietan lizenziatua. Oñatiko Eteon eta Bilbon ikasi zuen.

### ● Rafael Gomezek, Al

Andalus elkarteko lehen-dakari izaten jarraituko du beste bi urtez. Bestalde, hauek dira zuzendaritza batzordeko kide berriak:

**Rafael Raya, José Gomez Priego, José Gomez Pozo, Sebastian Lozano, Enrique Perez, José Arévalo eta Francisco Galiot.**

### ● Santamasak 93 argazki

lehiaketako sarituak: **Jabier**

**Ozaetak**, bilduma onena-


ren. Bigarren bilduma onena

**Esteban Sanchezek.**

**Angel Arenazak** argazki

onena eta **Karmelo Uriba-**

**rrenek**, Olentzero saria.



**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**Monte  
taberna**


Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

**'CARFRA' SUKALDE  
ALTZARIAK  
5 URTETAKO  
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN  
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU  
ENPOTRATUAK  
ISPILU-ATE  
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA  
KANPOKO ATEAK**



Vanessa

**Berango**  
ALTZARIAK

**ERAKUSKETA**

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

**DeLonghi**

marka  
italiarraren  
banatzaile  
ofiziala

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

## Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA




DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



# Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



## Lesioak eta hotza

Gertakari handiegirik gabe joan ziztaigun Zaldibarko txapelketako azkenengo jardunaldia. Gertakari azpimarragarriena, agian, Nabarros taldeko atezainak sufritutako lesioa izan daiteke. Jokoan ari zela lesionatu egin zen. Hiru hilabetetan ezingo du jokatu, eta gainera ebakuntza ere egin beharko diote. Goian ilustratzeko jarri dugun argazkian beste lesio baten irudia daukagu, baina kasu honetan, ez zen garrantzizko ezer

izan eta partidura itzuli zen jokalaria. Bestelako intzidente aipagarririk ez: ez zigorrik, ez abisurik. Jardunaldi "hotza", bistan dagoenez. Eta hotza aipatzen dugunez, ikusi egin behar ea asteburuan elurrik egiten duen. Iaz, otsail amaierako elurtearekin jardunaldi oso bat suspenditu egin behar izan zuten. Elurra beharrean, izotza badago, jokatu egingo da, horrelako hotzetan ibiltzera ohituta baitaude jokalariek.



### ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atea, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**

Erakusketa berria:  
Kanpatorpea, 2  
(Parrokia ondoan)  
ETORRI IKUSTERA!



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35




Zurgin Kantoi, 2  
Tfnoa: 79 20 04  
ARRASATE

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
SUM. UGARTE	13	13	0	0	93	18	<b>26</b>
TRIKITI	13	12	0	1	65	15	<b>24</b>
ARLUTZ	13	10	2	1	66	20	<b>22</b>
JEY JULIWER	13	9	3	1	54	20	<b>21</b>
UGLYS TXINATO	13	8	2	3	53	36	<b>18</b>
ZOTZ	13	8	2	3	45	39	<b>18</b>
ANBOTOSTE KT	13	7	2	4	34	25	<b>16</b>
SOKOAKOAK	13	8	0	5	58	44	<b>16</b>
BERANGO SUKALD.	13	7	1	5	43	33	<b>15</b>
BIZKORRAK AVE. T.	13	5	3	5	48	38	<b>13</b>
KOXKAS	13	5	1	7	36	40	<b>11</b>
WHISKERIA LINDE	13	4	1	8	34	76	<b>9</b>
EUSKAL INDARRA	13	4	0	9	53	65	<b>8</b>
IKATZ	13	3	2	8	41	70	<b>8</b>
RESAKAS	13	2	3	8	31	49	<b>7</b>
FRAGUEL GOL	13	2	3	8	26	39	<b>7</b>
AUF DEM KOFFER	13	3	0	10	24	51	<b>6</b>
ALLA KUIDAUS	13	3	0	10	24	71	<b>6</b>
BAYERN LENITZ	13	3	0	10	22	61	<b>6</b>
ETXE MOBILIARIO	13	1	1	11	28	68	<b>3</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	13	13	0	0	96	32	<b>26</b>
DANOK LAGUN	13	7	6	0	35	17	<b>20</b>
ZULOOK	13	9	2	2	51	28	<b>20</b>
ARR. KIROLAK	13	10	0	3	54	32	<b>20</b>
LEINTZ GARAGAR.	13	8	2	3	53	21	<b>18</b>
IRATI STS	13	7	3	3	54	28	<b>17</b>
ALPEN KRAUSSER	13	8	1	4	62	68	<b>17</b>
BUKANAK	13	7	2	4	51	33	<b>16</b>
BETRAYER	13	7	2	4	59	36	<b>16</b>
TRONKOTEAK	13	7	2	4	37	37	<b>16</b>
OJO AVISORE	13	4	3	6	57	54	<b>11</b>
EXCAV. LETE	13	3	5	5	75	41	<b>11</b>
NOTXINGAN FLO.	13	4	3	6	41	52	<b>11</b>
GANBELAS	13	5	0	8	36	44	<b>10</b>
OOOLE	13	4	1	8	40	64	<b>9</b>
DIEGO ANTONIO	13	3	1	9	33	48	<b>7</b>
FANCY BOIS	13	2	2	9	34	54	<b>6</b>
KOPYPREST	13	2	1	10	35	70	<b>5</b>
MONTERREY Z.B.	13	1	1	11	32	78	<b>3</b>
ATXANTA KE TE...	13	0	1	12	23	90	<b>1</b>

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
FOSFOROS	13	11	1	1	69	17	<b>23</b>
LOS HEREDIA	13	10	1	2	48	18	<b>21</b>
NABARROS	13	10	1	2	56	23	<b>21</b>
MIKELOS	13	9	1	3	53	25	<b>19</b>
KAKAJAURI	13	7	4	2	48	24	<b>18</b>
ARR. KRISTALDEGIA	13	8	2	3	48	30	<b>18</b>
PEPELUS	13	7	1	5	55	34	<b>15</b>
MOTZ	13	6	1	6	54	36	<b>13</b>
ADELAIDA HAIZEA	13	5	3	5	33	38	<b>13</b>
TXOKO TABERNA	13	6	1	6	27	37	<b>13</b>
HIREI	13	5	2	6	40	41	<b>12</b>
MZK GANBELAS	13	4	2	7	34	38	<b>10</b>
LOS DALTON	13	4	2	7	42	51	<b>10</b>
POTOSORRI	13	5	0	8	25	33	<b>10</b>
KIRTEN TROPEL	13	4	2	7	27	40	<b>10</b>
FOTO IMAGEN	13	3	3	7	33	45	<b>9</b>
LEYA	13	4	1	8	39	69	<b>9</b>
SIBILIUS ROVER	13	4	0	9	19	39	<b>8</b>
BORROCKN ROLL	13	3	0	10	31	72	<b>6</b>
CORINTO TABERNA	13	1	0	12	24	95	<b>2</b>

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ZULUS	13	11	2	0	101	29	<b>24</b>
POTROAK LORATEGI	13	10	2	1	64	30	<b>22</b>
TUTTIFRUTI	13	9	3	1	66	36	<b>21</b>
CARBUROS	13	8	4	1	51	22	<b>20</b>
AC SURCOS	13	9	2	2	66	30	<b>20</b>
REVOLUTION ROCK	13	10	0	3	58	28	<b>20</b>
TOVARIXTX	13	9	2	2	48	32	<b>20</b>
LASO ARREGI	13	8	1	4	50	39	<b>17</b>
FRANCISCANERR	13	8	0	5	65	44	<b>16</b>
NUEVO TABERNA	13	6	1	6	32	36	<b>13</b>
KRISKIBALDA	13	5	3	5	48	43	<b>13</b>
GURE LEKU	13	5	1	7	41	51	<b>11</b>
MACCABI DE LEV.	13	4	2	7	34	45	<b>10</b>
SOLANO 7 MARES	13	4	2	7	52	69	<b>10</b>
LOS DIMY	13	2	5	6	35	38	<b>9</b>
BOSDISCA	13	2	1	10	25	71	<b>5</b>
ILUNA TABERNA	13	2	1	10	28	88	<b>5</b>
EZKINAKO HONTZAK	13	1	0	12	23	77	<b>2</b>
KOAK LAIT	13	1	0	12	22	52	<b>2</b>
ELISABETH	13	0	0	13	27	76	<b>0</b>




**LORATEGI**  
Iturriotz, 7  
ARRASATE  
Tefnoa: 790467



**JOSTEKO**  
**OIHALAK**  
Errekabarren, 20  
ARETXABAETA  
Tfnoa: 79 80 90

**EPELDE**  
*argazki denda*  
Iturriotz, 24  
ARRASATE  
TFNOA: 79 19 71



**PINTURA EKOLOGIKOAK**  
**Diferentzia: zure osasuna**  
Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako fel-pudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.  
Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



**Hiru partidu destakatuko ditugu hurrengo jardunaldirako: Jey Juliwer - Suministros Ugarte; Fosforos - Nabarros; eta Arrasate Kristaldegia - Los Heredia. Sei jardunaldi geratzen dira lehen fasea amaitzeko eta, beraz, oraindik gauza asko dago esateko.**

**BELARRIRA**

◆ **Puntu barik.** Talde bakarra dago punturik lortu ez duena: Elisabeth. Hori nahikoa umilizazioa ez balitz, gainera, kanporatuta dagoen eta jokatzeko ez duen talde baten atzetik azaltzen dira sailkapenean (Koak Lait-en atzetik). Dakizuen bezala, lehen fasea amaitzean zuzendu egingo ditugu taulak, dagokionari puntuak kentzeko eta nor bere tokian jartzeko. Lasai egon bitez, bada, Elisabethekoak, puntu barik ere ez dira azkenak izango eta (kanporatzen ez badituzte, behintzat).

◆ **Golegileak.** Pronostikatu genuen moduan, Zulus izan da 100 golen marka gaintu duen lehen taldea. Gol gutxien sartu duena, aldiz, Sibilius Rover taldea da (19), eta aurka gol gehien izan dituen Corinto Taberna (95).

◆ **B taldean interesa.** Sei partidu falta dira lehen fasea amaitzeko, eta B taldea dago interesgarrien, ekipo mordo bat dagoelako 8 lehenetan sartzeko dantzan.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Jey Juliwer 4 - Resakas 1  
Fraguel Gol 3 - Suministros Ugarte 4  
Etxe Mobiliario 4 - Uglys Txinato 10  
Berango Sukaldeak 4 - Zotz 3  
Auf dem Koffer 0 - Trikiti 2  
Anbotoste KT 4 - Sokoakoak 1  
Alla Kuidaus 1 - Koxkas 5  
Arlutz 9 - Ikatz 1  
Bayern Lenitz 4 - Euskal Indarra 5  
Bizkorak Avenida tab. 14 - Whiskeria Linde 0

**C TALDEA**

Los Dalton 3 - Mikelos 7  
Kirten Tropel 2 - MZK Ganbelas 3  
Hirei 6 - Pepelus 1  
Fosforos 9 - Sibilius Rover 0  
Txoko Taberna 2 - Nabarros 8  
Arrasate Kristaldegia 4 - Motz 3  
Adelaida Haizea 3 - Los Heredia 1  
Corinto Taberna 2 - Leya 4  
Borrokcn Roll 1 - Kakajauri 11  
Foto Imagen 4 - Potrosorri 5

**B TALDEA**

Irati STS 1 - Leintz Garagardotegia 1  
Fancy Bois 2 - Notxingan Florest 4  
Diego Antonio 4 - Ooole 7  
Bukanak 1 - Zuloak 7  
Atxanta ke te merece 0 - Ojo Avisore 11  
Argi Ibili 12 - Monterrey Zubi Bel 1  
Alpen Krausser 8 - Kopyprest 6  
Arrasate Kirolak 4 - Ganbelas 2  
Betraye 7 - Excavaciones Lete 3  
Danok Lagun 0 - Tronkoteak 0

**D TALDEA**

Laso Arregi 5 - Maccabi de Levantar 2  
Kriskibalda 1 - Revolution Rock 5  
Franciscanerr 7 - Tovarixt 0  
Elisabeth 1 - Zulus 5  
Bodisca 1 - Solano 7 Mares 16  
Iluna Taberna 1 - Potroak Lorategi 4  
AC Surcos 4 - Los Dimy 4  
Carbuos 9 - Gure Leku 0  
Ezkiñako Hontzak 2 - Tuttifruti 6



**Udalaitz, S. A.**



**ADI!**  
**2. Eskuko autoak**



<b>Audi 100 CD</b>	<b>M-0676-AJ</b>
<b>VW Passat</b>	<b>SS-8288-T</b>
<b>Ford XR3i</b>	<b>SS-1316-AD</b>
<b>Ibiza</b>	<b>BI-5590-BB</b>

Musakola auzoa, z/g  
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

**Deba Garaia Inmobiliaria**



**Inmueble eta finantza agentzia**

Maalako Arrabala, 31 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 02

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 22**

**Zaldibar**

- 08.50 Mikelos - Potrosorri
- 10.00 Jey Juliwer - Suministros Ugarte
- 11.00 Kriskibalda - Tovarixtx
- 12.00 Fosforos - Nabarros
- 13.00 Maccabi de levantar - Tuttifruta
- 14.00 Irati STS - Notxingan Florest
- 15.00 Alpen Krausser - Ganbelas
- 16.00 Laso Arregi - Revolution Rock
- 17.00 Auf dem Koffer - Sokoakoak
- 18.00 Fraguél Gol - Uglys Txinato
- 19.00 Los Dalton - MZK Ganbelas

**Iturripe A**

- 10.00 Fancy Bois - Ooole
- 11.00 Corinto Taberna - Kakajauri
- 12.00 Betrayer - Danok Lagun
- 13.00 Txoko Taberna - Motz
- 15.00 Elisabeth - Solano 7 Mares
- 16.00 Nuevo Taberna - Gure Leku
- 17.00 Arlutz - Euskal Indarra
- 18.00 Argi Ibili - Kopyprest

**Iturripe B**

- 11.00 Berango Sukaldeak - Trikiti
- 12.00 Bukanak - Ojo Avisore
- 13.00 Arrasate Kristaldegia - Los Heredia
- 15.00 Iluna Taberna - Los Dimy
- 16.00 Arrasate Kirolak - Excavaciones Lete
- 17.00 Bayern Lenitz - Bizkorak Avenida Taberna
- 18.00 Alla Kuidaus - Ikatz

**Igandea 23**

**Zaldibar**

- 08.50 Lenitz Garagardotegia - Tronkoteak
- 10.00 Hirei - Sibilius Rover
- 11.00 Diego Antonio - Zuloak
- 12.00 Franciscanerr - Zulus
- 13.00 Resakas - Whiskeria Lindea

**Iturripe A**

- 10.00 Carbueros - Ezkiñako Hontzak
- 11.00 Kirten Tropel - Pepelus
- 12.00 Etxe Mobiliario - Zotz
- 13.00 Bodisca - Potroak Lorategi

**Iturripe B**

- 10.00 Anbotoste KT - Koxkas
- 11.00 Adelaida Haizea - Leya
- 12.00 Atxanta ke te merece - Monterrey Zubi Bel
- 13.00 Borrockn Roll - Foto Imagen



# Jokalariek ez daukate aseguru-polizarik aurten

Nabarros taldeko atezainak lesio nahiko larria izan zuen asteburu honetan zegokion partiduan. Kirofanotik pasatu beharko du ebakuntza egitea, eta hiru hilabetetan ezin izango du jokatu, derrigorrezko baja izango da.

Lesio hau iaz gertatu izan baltzaio, txapelketako aseguruak hartuko zukeen gastuen kargu, baina aurten ez dago aseguruak. Alde batetik, dirua aurreratzeko ez da seguru hori kontratatu aurten, baina bestetik, iazkoan tramiteetan gertatzen ziren arazoengatik ere bai. Izan ere, izen-emate orrian datu pilo bat ondo azaltzea esigitzen zuen aseguruak, gastuen kargu hartzeko, eta arazoak

gertatzen ziren ondorioz. Gainera, denboraldian ez zen ezer larririk gertatu eta hortaz, aseguruak gabe ere joki zitekeela pentsatu zuten antolatzailuek.

Jokalarientzako aseguruak izan ez arren, txapelketak badauka beste poliza bat, kirol antolakuntza guztiek derrigor hartu behar dutena: aseguru soziala esaten zaio horri, eta txapelketatik kanpoko beste inori gerta dakizkiokeen kalteak betetzen ditu honek (autoetako gutxieneko aseguruak bezala). Adibidez, baloi baten ihes egin eta auto baten kristala apurtzen badu, poliza horrek betetzen du.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Aita Menni gaixoen egunero izaten dute ordubeteko denbora librean.

ez daraman lanean.

## ONDO PASATZEN ERE BADAKITE

Euren erara, baina emakume hauek badakite ondo pasatzen. Victor Larrinaga, Aita Menni ospitaleko Animazio Sozio-Kultural departamentuko arduraduna da, Montse Moreno, bere laguntzailea. Victor, emakume hauen laguntza kulturalaz arduratzen da, beste gauza batzuen artean, denbora librean eta aktibitate terapeutikoen barruan egiten dituzten aktibitate kulturalen antolaketaz. Emakume hauen jokuak, beste edozein pertsonak egiten dituen joku berberak dira. Beste guztiak bezala, emakume hauek duten gaixotasun desberdintzaile hori lehengo momentutik onartu behar dela dio Victorrek, desberdintasun hori ahalik eta arinen egiten saiatzen da behintzat.

Emakume hauen eguna oso luzea izaten da eta gauza asko egiteko denbora izaten dute. Egun luze horretan egiten dituzten ekintzen artean, kultur ekintzak daude. Dena den, 3 atal bereiztu behar lirarteke:

### Goizetako aktibitate Terapeutikoak

8-10 gaixok osatutako taldeekin eramaten da aurrera aktibitate hau. Gaixoen duten tratamendu psikologikoaren barruan sartzen dira kultur ekintza hauek. "Promozio kulturalako taldeak" izenekoak, irakurtzera, idaztera, munduko errealitatea eta atzerrian gertatzen diren gauzak ezagutzera eta egunkaria irakurtzera bultzatzen dituzte gaixoak; Santa Agedatik kanpo gertatzen denaz informata egotera. 8-10 gaixotako taldeekin, irakurketa kolektiboak egiten dira. Dena den, liburu irakurterrazak eta irakurle hasi berriei zuzendutakoak irakurtzen dituzte.

# Botika kulturala

Maidar Egües

**Aita Menni ospitaleko gaixoen duten denbora librean arakatu nahi izan dut. Zein afizio dute? Partxis tabla, karta-joku, liburu, pelikula, kaballete eta zeramika irudien artean aurkitu ditut.**

Bi psikiatrikoak independenteak dira guztiz, ez du bata bestearekin inolako loturarik, bietan atenditzen dituzten pertsonen ezintazuna izan ezik. Emakumezkoen Aita Menni hospitaleak sekulako pasilo luzea du, oso za-

**M**usikarekiko sentsibilitate berezia dute, asko gustatzen zaie

bala da. Emakume ugari dabilta pasilo horretatik pasian: Arratsaldeko 3ak dira. Ordu honetan ez dute aktibitate berezirik, beraz, kafetegian eta pasiloan dabilta gehienak, kalean ibiliko balira bezala. Montse heldu da, bertan lan egiten duen emakumea da. Bapatean, emakume guztiak hasi dira Montse agurtzen, "Hola Montse, ¿qué tal?"... guztiak esaten diote gauza bera. Gaixo batek muxu bat ematen dion bitartean, langile guztiak asko maite dituztela esaten dit Montsek, nahiz eta berak hilabete bat besterik

**"Kultur gela"**

Egunero 17'30etatik 18'30etara burutzen da. Ordu bete hau, gaixoen denbora libre da. Liburutegia, ludoteka, aktibitate artistikoak, bideoteka, irakurketa taldeak eta ikastaroak (pintura, beiragintza, zeramika, otargintza...) izaten dituzte denbora libre hori betetzeko. Dena den, ikastaroetan parte hartu ahal izateko, gaixoak apuntatu egin behar izaten dira. Larunbatean goizeko 10'00etatik 13'00ak arte eta arratsaldeko 16'00etatik arratsaldeko 18'30ak arte, aktibitate hauek burutzen dituzte.

**Jai egun bereziak**

Beste edozein lekutan gertatzen den bezala, urtean zehar, Aita Menni ospitaleak ere bere jai "gogorak" ospatzen ditu; Santamasak, Gabonak, Karnabalak eta Santa Ageda eguna izaten dira horiek. Festa hauek, normalean ospatzen diren eguna baino egun bat lehenago ospatzen dituzte, Santamasak, adibidez, 21ean ospatu zituzten. Victor Larrinagaren ustetan, joan den urteko jaiak inoiz baino hobeto atera ziren. Santamasek adibidez, sekulako jendetza piloa bildu zuten. Abenduaren 21eko arratsaldean, kanpotik zetozen 120 lagun bildu ziren Aita Mennin: Al Andalus, Lore Gazteak, Tikitilari taldea, etabar. Era berean, AEDko talogileak ere izan ziren eta oso esperientzia polita bizi izan zuten. Txerri txiki baten zozketa ere egin zuten. Gabonetako jai egitaraua sekulakoa zen: Ermuko emakumeen antzerki taldea, Arrasate Musikaleko kontzertua, Juan Luis eta Begoña Lekunberriren pianu eta kantu errezitaldia, gabon amaierako "kotilloia", Bingoa eta Erregeen kabalgata izan ziren besteak beste aktibitateetako batzuk. Talde guzti hauen kolaborazioa guztiz desinteresatua dela azpimarratu nahi dute antolatzaileek eta eskerrak eman nahi

**5 km. madarikatuak**

Horixe da (gutxi gora behera) Santa Agedatik Arrasatera dagoen distantzia. Distantzia hori "abismala" da Victorren ustetan: Jendeak oso urruti ikusten du hospitalea, herrikoa ez balitz moduan. Orain arte ospitalearen eta herriaren artean egon den erlaziorik eza izugarria izan da. Bertara joateko kotxea hartu beharrak izugarri botatzen du jendea atzera. Ospitaleko arduradunak, distantzia hori nolabait "txikitzen" saiatu dira, ospitalea eta herria elkartu egin nahi izan dituzte. Victorren ustez, Aita Menni eta herriak dinamika desberdina dute eta normala da, sujetu bakoitzak bere ardurak dituelako, baina horrek ez da oztopo bat izan behar zenbait kasutan elkartu ahal izateko. Aita Menni arduradunak egiten ari diren lanari esker, gero eta tendentzia handiagoa dago biak elkartzeko. Herriko elkarteak, AED, Al Andalus edo Arrasate Musikal, Aita Menni ospatzen diren jai guztietara gonbidatzen dituzte. Era berean, gaixoek herriko bizitza ezagutu dezaten, gero eta bisita gehiago egiten dituzte Arrasatera; ostiraletan adibidez, asko dira merkadilora beren erropak erostera jeisten diren emakumeak. 5 Km. madarikatu horiek "txikitzea" ezinezkoa da, inork ez ditu Arrasate eta Santa Ageda elkartuago jarriko. Dena den, orainarteko borondate onak distantzia hori zertxobait txikitu duela esan daiteke.



Larunbat goizetan, pintura ikastaroa izaten dute.

dizkiete talde guztiei.

**MUSIKAREKIKO SENTSIBILITATEA**

Gaixoek sentsibilitate berezia erakusten dute musikarekiko, asko gustatzen zaie. Beste gauza batzu baino gehiago, musika emanaldiak eskeintzen dizkietela onartzen dute bertako langileek. Arrasate Musikalek betidanik gorde izan du txoko berezi bat Aita Mennin, akademiak ballet taldea bertara eramaten zuen garaitik.

**GAIXOEK EZ DUTE INIZIATIBARIK**

Buruko gaixotasunen ondorioetako bat, motibazio falta da. Ia ia ez da borondaterik nabaritzen euren aldetik. Gaixoak oso gutxitan esaten du egin nahi duena. Aktibitate Terapeutikoetako promozio kulturalako taldeak arazo hori konpontzen saiatzen dira. Etengabe egon behar izaten dute gaixoen gainean, gauzak proposatzen eta egindakoetatik zer gustatu zaien asmatzen. Gaixoek oso modu bixian erakusten dituzte euren gustoak, zeharkako galderen bidez. Gaixo batek pintura ikastaroan parte hartu duenean, ikastaro hori berriz ere noiz antolatuko den galdetuz, edo bertan egin duen koadroa lagun edo familiarteko bati oparituko diola esanez, ikastaro horretan gustora egon dela adierazten du. Joan zen urtean, Aktibitate Terapeutikoko taldeetan, izugarri harritu zituen Santiagoko Bidearen gaiak. Gai hori jorratzen ibili ziren: Liburuak, bideoak, mapak etabar erosi zituzten eta talde bakoitzak bere modura egiten zuen lan. Interes handia somatu zitzairen.

Argi dagoena zera da; Aita Menni lan egiteko izakera berezia behar dela izan, sentsibleagoa eta pazientziaduna izan behar da. Halakoak dira bertako langileak eta hala dijoazkie gauzak.

# “El Globo Rojo”ko kazetariekin berbetan

**Aldizkari honetako erre-dakzioa ez dute perso-na fijoek osatzen. Inork ez die esaten idatzi beharrekoa. Inor kritikatu nahi badute, askatasun osoz egin dezakete. “Erredakzio gelara” sartu eta guztiek agurtu egin naute; bazekiten joango nintzena. Bat baina, galdetu diet zer idazten duten aldizkarian.**

## • IGNACIO G. T. G., “IGNACITO”

“Asko balio duten ton-takeriak idazten ditut nik. Datorren zenbakian idatziko dudana ez dakit oraindik, ez dut pentsatu.”

## • FRANCISCO, “TITO”

“Nik marrazkiak egiten ditut bakarrik: Etxeak, hondartzak, hodeiak, pertsonak...”

— Zer margotzen ari zara orain?

— Ama Birgina eta ain-geru bat.

## • FERNANDO S. L., “EL MARINO TERRESTRE”

“Denetarik egiten dut aldizkarian: Kristinari laguntzen diot gauzak makinara pasatzen. Nire autobiografia idatzi dut kapitulu desberdinetan. Behin irratan hitzegiten egon nintzen Arrasaten. Ni marinela izan naiz. Dena den,

“El Globo Rojo”ko 2. aldizkarian “hil” egin ninduten: Nire autobiografiako 2 kapitulu batera jarri zituzten eta hori irakurtzeko, astunegia da.

— Zer idazten duzu?

— Yugoslabia ohiko gauzak, SESBekoak, baita Mejikon gertatu den altxamendu horri buruzko gauzak ere. Ni lehen U.T.T-koa nintzen: “Union Tomadores de Tinto”.

## • JOAKIN A. F.

“Nik ez dut ezer idazten (alfabetatu gabea da), Santa Agedari buruzko marrazkiak egiten ditut.”

## • JESUS T. A.

“Nik “2” zenbakia besterik ez dakit egiten (2 zenbakiaz betetako folio bat erakusten dit). Lehengo egunean “4” zenbakia egitea lortu nuen! Baina beste gauza batzuk ere egiten ditut: jantokian egiten dut lan, baita torluju tailerrean ere. Nerbioen arazoengatik ekarri ninduten hona, bestela ez nuen ezer ere. Maiatzean Peñiskolan egin nintzen, oso ondo pasatu nuen.”

## • LEOPOLDO P.

“Poesia eta terrorezko literatura idazten dut, Edgar Allan Poek bezala. “Sinbolismo frantsesaren” estilokoak: politak baina makabroak. Ni poeta libre naiz.”

— Filosofoa dirudizu.

## ● “Psikiatriak defentsak kentzen dizkizu”

**LEOPOLDO P.**



— Ez naiz filosofoa, literatua baizik. Psikiatriak defentsak kentzen dizkizu.

## • JOSE LUIS M.

“Nik kontakizun motzak, alegatoak eta iritzi artikulua idazten ditut. Segun zer gertatzen ari den. Orain gertatzen diren gauzetaz idatzi nahi dut: jendearen independentzia, dirua. Diruaren truke denetik egiten da, egitazkoak diren gauzetaz ahaztu egin gara, gezur hutsean bizi gara.”

— Zer irakurtzeko ohitura duzu?

— Literatura orientala dut gustoko.

## • JOSE MANUEL L.

“Nik ingelesez idazten dut beti, itsas armadan ikasi nuen

ingeleza. Itsasoko kapitaina izan nintzen. Karibetik, Barbadosetik ibili nintzen.”

## • ABEL S.

“Nik marrazkiak egiten ditut. Hurrengo aldizkarian ez dakit zer marraztuko dudana, animaliak, jendea agian.”

— Lagunek idazten dutena irakurtzeko ohiturarik baduzu?

— Ez.

## • JOSE ANTONIO L.

“52 urtetan sakristaua izan naiz eta santuekin erlazionatutako gauzak idazten ditut. Gabonei buruz ere idatzi dut. Nire lagunek idazten dutena irakurtzen dut.”

— Liburu bat duzu eskuartean. Zer irakurtzen ari zara?

— “Hablar con Dios” ize-neko liburua.



Ziikloturistentzako irteera errazagoak antolatzeko asmoa dauka klubak aurten.

## Deba Garaiko kluba zikloturisten bazkide bila

**Deba** Garaiko klub zikloturista aurtengo irteera programa prestatzen ari da, eta horrekin batera bazkide berrien bila. Deba Garaiko klubak eskualde osoan dauzka bazkideak, baina batez ere Arrasaten, eta hementxe du egoitza, Nafarroa etorbidean. Duela gutxi, zuzendaritza taldea aldatu du klubak (Jose Migel Landa da lehendakari berria), eta aldaketa horrekin aro berri bat hasi nahi dute. Izan ere, azken aldiari galdu egin dituzte zenbait bazkide, eta ia ehun lagun izatetik, gaur egungo 64 sozioetara igaro dira.

Klubaren arduradunen iritziz, horretarako arrazoietako bat antolatu izan diren irteera gogorrak izan dira:

ibilbide luze eta menditsuak. Horregatik, aurrerantzean irteera eta ibilbide arinagoak antolatu nahi dituzte. Horrez gain, aurrerantzean bazkide guztiak zikloturista federatu bihurtuko dituzte, guztiak aseguru egokiak eta berdinak izateko. Orain arte, bazkide asko ez zeuden federatuta eta horrek desberdintasunak zekartzan ordaindu beharreko kuotetan eta aseguru kontuetan. Auzi hauetan denak bateratzea hobe dela pentsatu du direktiba berriak, eta horregatik federatzeko erabakia. Betebehar hauek eta bazkideen eskubiak zehazten dituen araudia ere onartu du klubak, abenduan egindako bileran.

Ireki duten bazkide

kanpainan daukaten beste helburu bat gazteak eta emakumezkoak erakartzea da. Izan ere, orain ez da emakumezko bat bera ere taldean, eta beste herri batzuetan ibiltzen dira. Gazteak ere ez dabilza larregi. Badirudi *mountain-bike* egitea nahiago dutela.

Deba Garaia klubaren aurtengo lehenbiziko irteera zikloturista Dorletara egingo dute martxoko lehen egandean. Informazio gehiago edo izena ematea nahi duenak klubaren egoitzara zuzendu daiteke, eta bestela telefono hauetara dei egin: 790239 (Jose Migel Landa, lehendakaria) edo 771138 (Fernando Gimenez, idazkaria).

## LABURRAK

### Mondraren morala gora

Golerako bidea aurkitu zuten Mondrako jokalariek azkenik (3-0 Balmasedari). Atxabalpen emaitza eta joko kaskarreko zenbait partiduren ondoren, igandean itxura ona eman zuen taldeak. "Etxean horrela jokatuta 2.B mailarako play-offean jokatzeak aukera izango dugu", esan du Iñaki Zeziaga entrenatzaileak Urritik Atxabalpen irabazi ezinik zebilen Mondra. Aurtengo ligan bi bolada erabat desberdin izan ditu taldeak: hasierakoa, oso ona; eta gero, kaskarra. Ea orain hasierako boladara itzultzen diren.

### Kiroldegirako erosketak

Musakolako kiroldegian material eta berrikuntzatan hainbat gastu egingo dira. Squash kantxa egokitu egingo da (5,4 milioi PTA), muskulazio makina berriak (1,6 milioi) eta bizikleta finkoak (198.000) erosiko dira gimnasiaerako, eta sarrerako kontrola berriztu egingo da (855.000).

### Ziklokrossa Aretxabaletan

Joan den urtarrilaren 2an Gipuzkoako ziklokross txapelketa jokatu zen Aretxabaletan, eta bertako mutiko batek, Sasiain taldeko Mikel Roldanek, irabazi zuen kadete mailan.

Ongi aukeratu ahal izan dezazun

Gizonezkoentzako erropa

**Egizabal**

Gizonezko eta emakumeentzako oinetakoak

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 12 28 BERGARA



**PENALTIAK**

● **Lidergoa galdu zuen Arrasate Saskibaloitaldeak Loiola-Indautxu indartsuaren kantuan galduta. Momentu kaskarrean dago arrasatearren jokoa, hain ondo ibili eta gero. Motibo nagusia lesioak izan daitezke: ezin jokatuta daude Zubiria, Iñarra eta Gabilondo; ukituta Fernandez, Alvarez, Mondragon, Gamarra eta Saez de Biteri. Ea osatzen diren.**

● **Goizuetatik Urrietara mendi-irteera antolatu du Besaidek urtarrilaren 30erako. Izen-ematea 25etik 27ra. Prezioa: bazkide nagusiak 1.000 PTA, bazkide gazteak 500, gainerako nagusiak 1.300, gainerako gazteak 800.**

# Pilotako euskal liga eta Gipuzkoako kopa hasi dira

Arrasateko pilota taldea lehiaketetara itzuli da joan den asteburuan. Udazkenean zehar Gipuzkoako klub-arte txapelketan hartu zuten parte pilotari arrasatearrek, eta orain Euskal Ligaren eta Gipuzkoako Koparen txanda da. Bi lehiaketa hauetan, klub-artekoan ez bezala, jubenetatik gorakoek jokatzen dute, ez umeez.

Euskal Liga da lehiaketa garrantzitsuenak. Horretara, klub-artekoetan sailkatutako onenak bakarrik joaten dira, eta hortaz, Arrasatek ordezkari bakarra izango genuela uste genuen: Josu Errasti jubenila. Hala ere, antolakuntzako gorabeherengatik, senior batek (Oskar Aristimuño) eta junior bikoteak (Goikoetxea eta



Euskal Liga derrotekin hasi dute Arrasateko pilotariak.

Zuazubiskarrek) txapelketa horretan sartzeko aukera izan dute. Lehen partiduan, dena den, guztiek galdu egin dute, tamalez.

Gipuzkoako Kopa aurrekoan sailkatu ez direnentzat da, eta partidu bakarreko kanporaketa izaten da. Be-

hin galdu ezkerro, kalera. Kopa honetan bi bikote senior eta bikote jubenila hasi dira. Seniorretako pareja bat, Korta-Aristimuño, kanpoan dago jada, baina aurrera egin dute besteek (Mujika-Kortak), eta jubenilek (Zugasti-Uribarrenek) ere bai.

**EMAITZAK**

**Futbola**

3. maila: Mondra 3 - Balmaseda 0  
Emakumezkoak: Mondra 6 - Elgoibar 1  
2. regionala: Mondra 3 - Urki 3  
Jub. Ohorezko Liga: Lazkao 3 - Mondra 1  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 4 - Aloña Mendi 3  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 7 - Soraluze 3  
Haurrak: Arrasate 10 - Amaro 0  
Hurrengoak:  
3. maila: Mondra - Hernani. Atxabalpe, igan., 16.00.  
Emakumezkoak: Ostadar - Mondra. Usurbil, lar., 16.00.  
2. regionala: Zestoa - Mondra. Larunbata, 15.45.  
Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Union Txiki. Atxabalpe, lar., 16.00.  
Jub., 2. maila: Segura - Arrasate. Larunbata, 17.15.  
Kadeteak, 1. maila: Mutriku - Arrasate. Larunbata, 16.00.  
Kadeteak, 2. maila: Urki - Arrasate. Ipuru, igan., 10.30.  
Haurrak: Ordizia - Arrasate. Igandea, 11.00

**Saskibaloia**

2. maila: Loiola Indautxu 96 - Arrasate 68  
Hurrengoak:  
2. maila: Arrasate - Cantabria. Musakola, lar., 18.30.  
Jub. mutilak: Xalbador - Arrasate A. Donostia, lar., 11.00.  
Arrasate B - Eskoriatza. Musakola, lar., 16.00.  
Jub. neskek: Ondartza - Patterncam. Hondarribia, igan., 12.00.

**Rugby**

Euskal liga, 2. m.: Arratiko Txekorrak 9 - Arrasate 7  
Jubenilak: Ordizia 15 - Arrasate 10  
Hurrengoak:  
Euskal liga, 2. m.: Arrasate - Gautxori. Garagartza, lar., 16.00.  
Jubenilak: Zarautz - Arrasate. Zarautz, igan., 11.00.

**Eskubaloia**

1. eskualdekoa: Urnieta 24 - Arrasate Kirolak 20  
2. eskualdekoa: Beasain 24 - Arrasate Kirolak 18  
Jubenilak: Arrasate 18 - Urola 19

**Hurrengoak:**

1. eskualdekoa: Arrasate - Loiola. Iturripe, lar. 17.30.  
2. eskualdekoa: Arrasate - Zarautz. Iturripe, lar., 16.00.  
Jubenilak: Arrasate - Urola. Iturripe, igan., 12.00.

**Pilota**

Euskal liga:  
Senior, banaka: Soraluze 18 - Arrasate 7  
Jubenil, banaka: Iruñea 18 - Arrasate 8  
Junior, binaka: Usurbil 22 - Arrasate 18  
Gipuzkoako kopa:  
Senior, binaka: Arrasate B 16 - Bergara 22  
Arrasate A 22 - Eskoriatza 17  
Jubenil banaka: Arrasate 22 - Bergara 12  
Hurrengoak:  
Gipuzkoako kopako partiduak Iturripen, lar., 11.00.  
Euskal Liga: Zaramaga-Arrasate (jub., banaka), Usansolo-Arrasate (jun. binaka), Bermeo-Arrasate (sen., banaka).

**TXOKO TABERNA**

*Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak*

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

**UGARTE**

**Industri hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412

**Txitxinpe**

**Berezitasunak:**  
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

# Datu harrigarriak

**Urbina**-Maltzaga autopista proiektuaren kasuan ikusten den bezala, azpiegitura obra faraoniko hauek garapen-eredu bat markatzen dute, garraio azkar eta pribatuari lehentasuna ematen diena hain zuzen ere. Hipotesi hau demostratzea nahiko zaila da, baina datu estatistikoek honetaz hausnarketatxo bat egiteko beta ematen digute. Hona hemen, Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) ibilgailu-parkerearen kopuruak duela hamar urtetik hona izandako eboluzioa:

Taulako zifrak erabiliz zenbait datu zehatzak atera daitezke, hala nola, ibilgailu-mota bakoitzaren kopuruaren gorakada, hauen portzentaia herrialde bakoitzean, edo biztanleria jakinez, zenbat ibilgailu tokatzen zaigun bakoitzari! Guk datu bat soilik adierazi nahi dugu: turismoak komunitateko ibilgailuen % 80 dira eta, autobusen kopurua % 0,3 besterik ez da. Benetan harrigarria!

**UDALAKO  
INGURUGIRO ESKOLA**



Urtea	Ibilgailu-mota	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	EAE
1981	Kamioiak	11.776	23.229	35.229	70.511
	Autobusak	281	844	1.274	2.399
	Turismoak	57.672	154.029	259.719	471.420
1991	Kamioiak	16.814	35.986	51.352	104.152
	Autobusak	396	731	1.233	2.360
	Turismoak	86.447	204.806	337.731	628.984

## Etxe-Aundi



*Galdetze hutsagatik andregaiak oparia jasoko du*

# ZUEK ESAN PREZIOA ETA GUK MENUA

Zuen eskontza gurekin ospatzen baduzue,


**EZKONTZAKO  
CAVA GURE  
KONTU**  
*Anna de Codorniu*



## Z E R N A H I A G O ?

## Ion Aranzabal

## "Aranzabal Elektragailuak" dendakoa



- Zer da gehien saltzen duzuen? Orain, telebistak eta bideoak.
- Emakume edo gizon gehiago etortzen dira? Gizonezkoak gehiago.
- Erreklamazio asko izaten duzue? Ez, normalak.
- Zenbat elektragailu dituzue dendan? Hogei bat.
- Musikarik jartzen duzue dendan? Bai, "Los 40 principales"
- Zenbatek egiten duzue lan hemen? 5 pertsona gaude.
- Nora bidaltzen dituzue elektragailuak konpontera? Kontratua daukagu markako etxeekin, eta horientzat guk geuk konpontzen ditugu.
- Gustoko ez duzun janari bat? Barazki guztiak.
- Telebistako programa bat? Kirolak, Mondrasport adibidez.
- Gehien gorrotatzen duzun aurkezlea? Antxon Urrusolo.
- Zein egunkari irakurtzen duzu? Deia.
- Beherapenetan erropa asko erosten duzu? Ez.
- Eskutitz asko idazten diezu lagunei? Ez!
- Daukazu defekturik handiena? Puntualitaterik eza.
- Sagardotegiren batetara joan zara? Bai, Loiola inguruko batean egon nintzen.
- Janari txinoa edo italiarra? Italiarra.
- Gimnasia joaten zara? Lehen bai, orain ez.
- Badakizu trikitixa dantzan egiten? Lore Gazteak-en ibili nintzen baina ahaztuta dut.
- Kariesik baduzu? Bai, hiru.
- Badakizu ordenadorea erabiltzen? Ez.
- Zein kolonia erabiltzen duzu? Ez dut koloniarik erabiltzen.
- Zein marka gomendatuko zenidake? Sony.

## BERTSOAK

Joxe Manuel Ariolari

Guda ondoren Udaltzain dator ekipoa osatzera, Inspektorea Mige! Haundi zen bost gizonen agintera, Torre, Mietza, Arbe, Billafre, Arriolakin batera, hau probarako etorriarren betirako bertan gera.

Zintzo ta zuzen bete ondoren egunez kalezain lana, ilunabarrez bertso idazten eten gabeko afana; Bertso kronika osatutzean doa Basarriengana, honek «La Voz» ta «El Diario» n argitaratzen zuana.

Eguneroko lanaren uzta bai izan dela aparta, nekez sortuko bertso bildumak hor darama bere marka; NEKEZ BADAERE konparatzen det bertsoz betetako arka, lasto pixka bat badauka baina gari onik ez du falta.

PATXI GOIKOLEA



# URONDO

## elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa


Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

# Jose Manuel Arriolari omenaldia

## “Arrasateri dena zor diot”

Igande honetan, gerra osteko 9 bertso jartzailereri omenaldia egingo diete bertsozaleek Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Horien artean, Jose Manuel Arriola, Arrasaten udaltzain izandakoa ere omenduko dute. Bere bertsozaletasunari buruz galdetu diogu.



— Sekula ez zara aritu kompetizio mailako bertsozaritzan. Zergatik?

— Bertsozaritza niretzat afizio bat besterik ez da izan. Izan nuen osaba bat, Itziarko “Zubeltzu” famatua; bertsolari ona zen. Niretzako maixua izan zen baina ez nuen aukera hori aprobetxatzen jakin izan. Gaztea nintzenean ez nintzen ausartzen bertsoak botatzera eta bertsozaritza afizio bezela hartu nuen.

— Lekuonaren esanetan, zure bertsoek ez dute teknika ona, bukaera flojo xamarrekoak dira.

— Nire ustez nire bertsoak flojoak dira “por falta de chispa”. Bertso bizi bat egiteko, grazia eukji behar da. Bertsoen bukaeran, bertsoaren arrazoia edo fundamentua joaten dela esaten da eta bukaera ona ez bada, bertsoa ez da ona. Nire ustez, nik ez dut graziarik

eta Lekuonak arrazoia du.

— Omenaldia egingo dizute. Zer sentitzen duzu?

— Oso poz handia. 1981ean Arrasaten beste omenaldi bat egin zidaten baina nik gauza bat esan nahi dut: nik dena zor diot Arrasateri. Arrasate oso ondo portatu zen nirekin. Gerra ostean elbarritua geratu nintzen eta Arrasatek lanbide bat eman zidan. Eskerrak eman nahi dizkiot herri honi.

— Egañaren garaipena zer iruditzen zaizu?

— Pronostikatuta nuen. Egaña oso ondo

zebilela banekien eta beragatik egin nuen apostu. Peñagarikano, Euskitze, Enbeita eta, oso ondo ikusten nituen ere. Dena den, nik oraingo bertsolariak baino, lehengo bat dut gustokoago: Basarri.

— Fray Rufinorekin gertatzen zen zerbaitek, bertso bat egitera eraman zintuen. Zein istorio da hori?

— Antzerki hutsa da, ez zen ezer seriorik izan. Nik amistadea nuen Rufinorekin beste frantzizkotar guztiakin bezala. Jende guztiak dakien bezela, bere Vespan gidatzeko baimenik gabe ibiltzen zen eta arrazoi horregatik, bertso bat egin nion. Frantzizkotarrak oso bertsozaleak ziren, ni bezela. Badirudi oso gustoko izan zutela bertsoa eta horregatik egin zen ezaguna. Rufinok susto handia hartu zuen eta geroztik bere gidatzeko baimena legalizatu egin zuen.


**Frantziskotarrik horrelakorik zanik ez nuan pentsatzen, bere jantzien konfiantzara karnet gabe konduzitzen; gizonak jarri ditun legeak alde batera bastertzen, Jaunak jarriak era horretan erreza ahal da beteten?**

## Amaia Martiartu: Ihauterietako kartelaren irabazlea

50.000 PTAtako saria eraman du Amaia Martiartu arrasatearrak datozen ihauterietako kartel onena aurkezteagatik. Oso lan gutxi aurkeztu dira lehiaketara eta horixe izan da konbokatoria honetako ezaugarririk azpimarragarriena: Guztira 9 lan besterik ez dira aurkeztu. Lan eskasia honen kausaz, erakusketarik egingo ez dela erabaki du Udaletxeak.

## Jose Letona beka

Dagoeneko, Jose Letona beka eskuratuko duen pertsona, aukeratua dago. Hiru pertsona izan dira beka eskuratzeko posibilitatea izan dutena, baina azkenean, Pasaiako David Zapirain Carricak eskuratu du. David Zapirainek, “Arrasate XVI. mendean” gaiari buruzko lana egin beharko du. Beka jaso ez duten 2 pertsonak, Pedro Berrusco donostiarra eta Javier Balanzategui arrasatearra ziren. Beka honek 750.000 PTako dotazioa du: 250.000 PTA lana egiten hasteko orduan emango dira, beste 250.000 PTA, 2. hiru hilabeteari dagokion lanaren informea aurkezterako orduan eta gainontzeko dirua, lana bukatzean eta aprobaten denean. Lana bukatu eta gero, hiru kopia aurkeztu beharko dira.



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia.**  
**Offset industrialia**

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

mokasin

**Zapatak eta osagarriak**

Kontzeziño, 6  
Tfnoa: 76 06 78  
ARRASATE

## LABURRAK

## HPINeko bekak

Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak (HPIN) atzera bota du Arrasate Euskaldun Dezaginen beka eskaera bat berriki antolatutako deialdian. AEDk bere ekintzei buruzko bideo bat egiteko beka bat eskatu zuen, baina proiektu hori ez da ageri aukeraturako hamar lanen artean. Hautatutako lanen artean, hauek dira beka jaso duten batzuk: "Enpresa munduko euskararen normalkuntza", "Azken 30 urteetan egin diren soziolinguistikazko ikerketen bilduma eta azterketa", eta herrietako euskararen aldeko elkartearen gaineko bi lan.

## Murruxio: Elurretara irteera

Denok dakizuen bezela, gure mendiak elurrez ginezka daude: Txuri txuriak eta polit-politak. Elurretan gora eta behera ibiltzea gustoko baduzu eta hotzak atzera botatzen ez bazaitu, Aretxabaletako Murruxio mendi elkarteak antolatuta, datorren igandean, hilak 23an, elurretara irteera egingo da. Irtetzeko ordua goizeko 9etan izango da Partenoian eta bazkalordurako buelta. Izena emateko epea ostegunean bukatzen da. Bazkideek 1.000 PTA ordaindu beharko dituzte, besteek 1.200 PTA.

## Gaztetxera 3 milioi

A.G.A.K.Oko arduradunek ez zuten espero diru kantitate hori eta zerutik jausitako opari bat bezala etorri zaie. Udalak 3 milioitako aurrekontua bideratu du Gaztetxearen berrikuntza lanetara. Gaztetxeko partaideek diotenez, udaletxearen erabaki honek oso pauso garrantzitsua ekarri du, erabaki honek materialki errekonozitu dituztela diotelako.

## ORAIN ARTEKO AUTOGESTIOA

Gaztetxearen finantziazioa autogestionatua izan da orainarte. Gaztetxean egin izan diren obra guztiak, barratik, futbolinetik eta billarretik ateratako diruari esker egin izan dira. Bi urtetako autogestioa izan da eta 2 obra garrantzitsu egin dituzte. Lehenengo obra, "koba" hura Gaztetxe bihurtzea izan zen. Zuloak estali, muro faltsuak bota, margotu, barra jarri eta almazena bereiztu izan ziren obra haren ardatzak. Bigarren obra beranduago etorri zen; Gaztetxea txukundu, eszenario berria jarri, honen atzean "benetazko" pareta jarri eta bi ate metalikoak ipini. Txapuzak izan zirela diote baina hasieran zulo beltz bat besterik ez zen hari, bizia eman zioten askok diotene moduan. Lokala oso hotza omen da, horretarako tximinia bat egin zuten, benetazko tximinia bat, adreilu bereziz egindako tximinia bat. Urbanismora permisua



Gaztetxeko obrak urtarrilaren 14an hasi ziren.

eskatu duten arren, ez diete sekula permiso hori luzatu.

## "ALERTA"

Diru kantitate hau oso ondo ondo etorri zaie, orainarte aurrera eraman ezin izan dituzten hainbat erreforma egin ahal izango dituztelako. Dena den, diru kantitate honek "alertan" jarri dituzte. Orain "dependienteak" izatera pasatu direla diote, diru kantitate honek beti dirua eskatzen egotera bultzatuko ote dituen da arduradunen keka handienetako bat.

Orainarte izan ez dituz-

ten komunak, argi instalazioaren konponketa, kaleko bankuak kendu eta mahaiak, aulkiak eta lehio sendoagoak jarriko ditu udalak, dena den, lokala ez da insonorizatuko. "Restaurazio" honen ondoren, jende gehiago joango dela espero du A.G.A.K.Ok. "Jendeak oso ilun ikusten du lokala, eta gainera, ez daude komunak" diote Gaztetxeko arduradunek. Orain argitsua oso izango da gaztetxea, eta gainera, inor ez da kanpora joan beharko bere beharrak egiteko.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioak  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorraketa mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

Gazteak 3 milioi



**J**oxe Manuel Arriola bertsolariari omenaldia egingo zaio, dakizuenez, aste honetan, Gerra Osteko Bertso-jartzaile bezala, Euskal Herri mailako beste zortzi lagunekin batera. Arrasaten, hala ere, bertsolari moduan bezain ezagun da udaltzain egin zituen urteengatik. Erretratu hau ez da hain zaharra, baina ederki jasotzen

du herriko ospakizun baten lekukotza.

Inaugurazio-ekitaldian bildu ziren erretratuko agindari guzti horiek. 1984ko azaroaren 9an izan zen. Ezkerretik eskumara, **Joxe Manuel Arriola, Sor Mari Kruz Velez de Mendizabal, Albaro Arregi,**—orduan Arrasateko alkatea—, **Jose Antonio Ardanza,**—aurretik

Arrasateko alkate izana eta orduan Gipuzkoako Diputatu nagusia—, **Karlos Garaikoetxea** Lehendakaria, **Anjel Larrañaga**— Jaurlaritzako Osasun Saileko Kontseilaria—, **Eli Galdos** garai hartan Oñatiko alkatea, **Jose Mari Astigarraga** parrokoa.

Atzekaldean, Egoitzako partaideak, jubilatua eta herritar ugari, ekitaldirako gon-

bidapen irekia egin zenen jendekasko bildu zen eta.

Joxe Manuel Arriolak, Ardanzari, bere alkate izandakoari kantatu zion, lan hura berarekin hasi eta berarekin bukatu zela eta antzeko batzuk kantatuz. Argazki honek historikoa izan behar du inolaz ere, EAJ-PNVren apurketa ofiziala baino hiru bat aste lehenago ateratakoa izaki.



Mondeo



Mondeo



**Barruko indardun edertasuna**

**Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.**

# Arrasateko Udal Euskaltegiak 93-94 ikasturterako otsailerako matrikulaldia aurkezten du:

- 5 eta 7. urratsak:
  - egunean 5 ordu
  - goizez
- 5 orduko ikastaroek izango dute lehentasuna
- matrikula epea: urtarrilaren 24ean zabalitzen da
- Ikasturtearen hasiera: otsailaren

## Beka sistema daukagu

- Bulego ordutegia:
  - goizetan 10,00 - 13,00
  - arratsaldetan 15,00 - 19,00


TANTTAKA  
TANTTAKA

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA  
Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tfnoak: 79 70 77 - 79 77 88

• ESAERA ZAHARRA •

*“Elurra neguan  
eta giro ederra  
udan, gauza  
denak bere  
sasoian”.*

• JEROGLIFIKOA •



Jolasean

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10						11	
12			13				
14			15			16	
17		18			19		
20							

J. B. AGORRIA  
**Horizontala** 1. Igitazi ebaki belarra, garia...9. Deba Garaiko ondarea babesteko elkarte. 10. Oinarrizko edaria. 11. Omen. 12. Mendebalde. 14. Musika nota. 15. Aluminioa. 16. Eusko Alkartasuna. 17. (Ald.) Eztia egiten duen intsektua. 19. Ez eme. 20. Onespén.

**Bertikalak** 1. Ikusteko zentzumena. 2. Irabazle. 3. Iparrorrazak markatzen du. 4. Titanioa. 5. Mehe. 6. Bi, erromatar erara. 7. Txoriak harrapatzeko tranpa. 8. Bost bokalak, atzetik aurrera. 13. (Ald.) Ibilgailu marka bat. 18. ARPAREN kontsonanteak. 19. Amnesty International.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Ez ezazu besteek esaten duten guztia sinetsi, gezurti asko dago eta munduan.

**Taurus** Nahiz eta arropa politak jantzi, berez zatarra dena, beti zatar.

**Gemini** Dirua alperrik gastatzen baduzu, gero faltan izango duzu.

**Cancer** Harrosko samarra izanik ere, hutsaren hurrengo zara.

**Leo** Indurainek bezain osasun ona daukazu.

**Virgo** Udaberriko arrosa gorria baino politagoa zara.

**Libra** Maite ez dituzun neskek maite zaituzte, zer egingo zaio.


**Scorpio** Eguraldiaren aldaketarekin batera egingo du onera zure zorteak.

**Sagitaris** Hau esateak min ematen didan arren, asteburu honetan txoriburueriak bakarrik ez dituzu egingo.

**Capricorn** Belarri handiak dituzun arren, besteen esanak ez dituzu ongi entzuten.

**Aquarius** Tenteago ibili, 80 urteko pertsona dirudizu.

**Piscis** Urtarrila oso iluna izango duzu, baina etorriko zaizkizu garai hobeak.




Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



• ANDRES INDAEN GOMENDIOA •



Jubilatuena kolekti-  
boan sartu berri da  
Andres, eta talde  
horretan ikusten  
duen arazo bati  
aurre egiteko go-  
mendioa eman nahi  
digu berak. "Izakia  
berez da komodoa,  
berecoia eta konpro-  
metitzen ez dena,  
eta nagusitutakoak  
areagotu egiten da  
hori. Bizitzan ikusle  
hutsak izateari utzi  
eta parte hartzea,  
inplikatzera gomen-  
datuko nieke jubila-  
tuei". Pertsona  
nagusiak ere bere  
eskubideak dituela  
eta horiek esigitu  
ahal izateko, gizarte-  
tik apartatu barik  
bizi izaten jarraitze-  
ko, "norbere buruari  
'nik zer egin de-  
zaket' galdetzeko  
jarraera edukitzea  
eskatuko nieke  
adinekoei".

• PROGRAMAZIOA •



23 Igandea

20.00etan  
Astebete programaren errepikapena  
20.30etan  
Mondragol

24 Astelehena

13.30etan  
Eguerdiko Berriak  
13.35etan  
Astebete errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport  
22.00etan  
Filme Erraldoia: "Lawrence Arabiakoa"

25 Asteartea

13.30etan  
Eguerdiko Berriak  
13.35etan  
Mondrasport errep.  
14.05etan  
"Lawrence Arabiakoa" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan.  
22.00etan  
Dokumentala: "Lurreko eta aireko ga-  
rraioak"

26 Asteazkena

13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
ATBketan errep.  
14.05etan  
Dokumentala errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Pareak Jokuan  
22.00etan  
"Jeremiah Jonshon"

28 Osteguna

13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Pareak Jokuan errep.  
14.05etan  
"Jeremiah Jonshon" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Andoni Zubarre-  
ta  
22.00etan  
Euskal Filma: "Ander eta Yul"

29 Ostirala

13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Bakarka errep.  
14.05etan  
"Ander eta Yul" errep.  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Haurren eguna: "Daniel eta lehoien zuloa"

• KOMIKIA •



**HAURTXOA**

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

**"EDERTU"**  
ileapaindegia

San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

• SOLUZIOAK •

**JEROGIFIKOA**  
Pilatua.  
ra. 8. Uoia. 13. Seat. 18. Rp. 19. AI.  
3. Ipar 4. Ti. 5. Argal. 6. II. 7. Txede.  
**Bertakal** 1. Ikusmena. 2. Garrantia.  
20. Batezpen.  
Mi. 15. Al. 16. EA. 17. Ete. 19. Ar.  
rto. 10. Ura. 11. Et. 12. Sarralde. 14.  
**Hortzontalak** 1. Igitariu. 9. Kap-  
**GURUTZEGRAMA**

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65**

## Etxebizitzak

- **Etxebizitza txikiren bat** alokairuan hartuko nuke, Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Alokatzeko asmo barik hutsik daukazun hori ondo zainduko dizut. Dei egin gaeuz 79 01 66 tfnora.
- **Goi mailako etxebizitza salgai** Arrasateko erdikaldean, 95 m<sup>2</sup> eta 20 m<sup>2</sup> sotoa, solarium handia erdi jantzia. Kalitate handiko materialak. Bulego edo antzekotarako oso egokia. Tfnoa: 79 64 50.
- **Errioxako San Vicenten etxebizitza salgai.** 85 m<sup>2</sup>, egongelan beheko sua, jantzita dago. Igerileku, tenis, frontoi eta berdegune askoko urbanizazioan. Prezioa: 12.750.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Garaje salgai.** Jose Luis Iñarran, 20. Tfnoa: 79 36 79.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaeuz deitu. Luis.
- **Errioxako Calahorran**, 75m<sup>2</sup>ko atiko ederra salgai. Eguzki-begia, jantzita, goteleduna eta egoera ezinhobean. 15m<sup>2</sup>ko ganbara eta trastelekua ere baditu. Herriaren erdigunean dago. Prezioa: 4.500.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Torremolinosen** apartamentu-estudioa salgai. Haundia, herriaren erdikaldean, jantzia, 2 pisua, igogailu, igerilekua, salariuma, atezaina...Prezioa: 3.250.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Torreviejan (Alicanten)**, itsasertzean, 55m<sup>2</sup>ko apartamendua salgai. 2 logela, egongela, terraza itxia, jantzia, igerilekua ere badu komunitatean. Aukera! Prezioa: 4.950.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.

## Lana

- **Esperientziadun neska, prest** dago etxeko edozein garbiketa, ume txiki edo/eta nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei egin 79 27 50 tfnora. Azuzena.
- **Pertsona bat behar dut klase partikularrak** emateko REM 1. mailako batentzat. Tfnoa: 79 99 97.
- **Emakumea prest lan egiteko**, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Euskalduna. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun neskak** umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **Klase partikularrak ematen ditut.** UBI eta EFPra-ino. Dei egin 79 84 75 tfnora goizez eta 79 02 76ra arratsalde. Judith.
- **Lokal komertzial, bulego, etxeetako garbiketarako** egiteko prest. Tfnoa: 77 09 56. Maribi.
- **OHO zein ingelesezko klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 45 60. Sonia.
- **Pertsona respontsablea behar da** etxeko lanak egiteko Aretxabaletan. Dei egin 79 74 52 tfnora gaeuko 8etatik aurrera.
- **Frantsesezko klaseak** hartuko nituzke. Dei egin 79 69 80 tfnora.
- **Kimikan lizentziatuak** OHO, BBB eta UBIko matematika, fisika eta Kimikakazko klaseak emango lituzke. Tfnoa: 79 42 97. Belen.
- **Neska bat behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 79 53. Arantxa.
- **Edozein motatako lanak** garbira pasatzen dizut ordenagailuz. Dei egin 79 77 59 tfnora eta Fernandez galdetu.

## Salerosketak

- **Sofa, mahaia, mezedora** eta zumitzezko jarlekua salgai. Batera edo banan banan. Tfnoa: 79 47 94.
  - **Salgai:**
    - AMSTRAD 2086 ordenagailua
    - Barruko 3 1/2 tako disketerak
    - Kanpoko 5 1/4 tako disketerak
    - VGA pantaila
    - Xagua
    - ACAD diskoak
    - D Base diuskoa
    - Lotus diskoa
    - Jokuak
- Prezioa: 60.000 PTA. Interesatuok dei egin 79 56 83 zenbakira eta Eduardoz galdetu.
- **"Barco" ohea salgai.** Tfnoa: 79 30 90
  - **Komoda bat salgai.** Tfnoa: 79 35 21.
  - **Eski alpinoko botak** salduko nituzke. 46 zenbakiko Salomon 582 modeloa. 4 aldiz erabiliak eta oso merke. Dei egin 79 50 41 Znbkira. Jon.
  - **Kutxa-izozkailu berria salgai.** 30.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.

## Denetarik

- **Kotxe zaharra botatzera zoazela?** HIES Ekimena kotxe baten beharrean dago, beraz... Tfnoa: 79 26 99.
- **Gasteiztik Arrasatera egunero**, arratsaldeko hiruretan bueltatzeko kotxe baten bila nabil. Tfnoa: 79 37 67. Silvia.

# Aste Gazte

## Lana

• Gipuzkoako Diputazioak egindako lanpostu deialdirako epea otsailak 8rarte zabalik. Lanpostu eta titulazio maila ezberdinak. Kontsulta itzazue bakoitzari dagozkion oinarri-arauak.

## Bekak

• Angel Apraiz Ikerketa Beka. Gaia: Gizarte-Zientziak, Zuzenbidea, Hezkuntza, Historia eta Geografia eta Euskal Herriko Komunitateak. Epea: otsailak 28.

• 94-95 ikasturtean Gizarte-Zientziako Ikasketa Aurreratuen Zentroan ikasteko bekak. Lizentziatu eta karrerako azken ikasturteko ikasleei zuzenduak. Epea: otsailak 28.

## Eski-kanpainak

• Besaide: Urtero bezala, Besaiderekin eskiatzera joan nahi duten ikasle eta langabetu guztiek 1.000 PTAko beharpena izango dute esku ikastaroetan.

• Diputazioa: asteburu

nahiz astebeteko irteerak, 15-29 urte bitarteko gazteei zuzenduak. Modalitateak: eski alpinoa eta snowboard.

## Lehiaketak

• Fantasi Ipuin Laburren II. Unibertsitate lehiaketa. 100.000 PTAko sari bakar bi emango dira, bata euskarazko irabazlearentzat eta bestea gaztelaniazkoarentzat. Epea: urtarrilak 28.

• V. Komiki lehiaketa. 14-30 urteko gazteei zuzendua. Colmenar Viejo eta Tres Cantos-eko Gaztetxeak antolatuta. Epea: otsailak 15.

**"Adostasuna dago in-tsumisioak aurrerantzean ere delitu izan behar duela esateko orduan. Baina ez, ordea, delitu horri dago-kion erantzun penal egokiena zehazteko orduan. Gaiak zabalik dirau"**

**JUAN ALBERTO BELLOCH,  
JUSTIZIA MINISTROA.**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**

# NOLA EZ DAKIZULA NORTZUK DIREN?

## ...L'Aigua dira...



### BAINA ORAINDIK GEHIAGO DAGO...

"Viva la Pepa'rekin gertatutakoak antzerki honen bereziarengatik estatu mailan zabaltzea ekarri bazuen, oso ondo lortutako identitate kreatiboa finkatzen duen kolpea da 'Juan Palomo'.

*G. Serrat (Manlleu. Barcelona)*

### HITZEGITEARI EZ DIOTE UZTEN GAINERA...

"Sei hilabete daramatzat oilasko berarekin salda egiten"...

Clown-ak, pailazoak, eskenatokiaren gainean, bere ahotik eta guretik hitz egiten du; eta zaharrei eta jakintsuei baino entzuten ez zaizkien agiak esaten ditu.




### Alicantekoak dira eta guzti hau esaten da eurretaz:

"... oinarrikoenaren bila ibiltzen dira beti, zehaztasunaren bila, euren lana depurazio estilistiko handiko lana da, eta horretan ari dira saiatzen. Oraingoz, sailkatzeko zaila den estetika berazi batez gain, publikoaren gozamena ekarri da".

*Nel Diago (El Público)*

"Antzerkiaren plazerra gozatzea bezain maiz gertatzen ez den gozamena"

*Miguel A. Auladell (Información. Alicante)*



### ETA OSO ONDO JARTZEN GAITUZTE...

"Hemendik, eta eskenatokian egiten den jokua bitartez, ikuslearen konplizitatea etengabe bilatuz, komedia jaiotzen da, eta itxura baten sinplea dirudien arren, oso da eraginkorra".

*Julian Huerta (Costa Blanca. Alicante)*

— IZZUGARRIA!

— BENETAN?

IZAN ERE...

"Eskenatokiko jokua artean, horretan, maixuak dira".

*Eudal Gracia (Barcelona)*

Juan Palomo Antzerki komikia

Alicanteko Teatro de L'aigua

Urtarrilak 28

Gaueko 10etan

Amaia antzokian

Sarrera: 500 PTA (300 Gazte

Txartelarekin)






O P E L A S T R A

# DENA DAUKA ZURE MUNDUAK.

HILABETE HONETAN  
**256.000** Pezeta  
ARTERAINOKO BEHERAPENA\*



OPEL ASTRA. ZURE AUTOA. ZURE MUNDUA.

\*Stock-ean dauden autoentzako promozioa hilabete honetan.

OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)  
Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria  
Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

**TALLERES NORTE**

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPELEN KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.